

Mozambique

Ikatzetan
aberats izateak
pobreziara
eraman ditu
biztanleak

Oscar Rodriguez

PSE-EE

«Azken
hamarkadan
dena aldatu da
politika izan ezik»

Jose Ignazio Lakasta

«PSN da
Nafarroako
erregimena
eror ez dadin
arduradun
nagusia»

Elena Lopez Aguirre

«Musikagintzan
lan egin duten
hainbat emakume
anonimotasunetik
ateratzea
erabaki dut»

ZALDIKIA

Elikadura industriaren eskandalua Donapaleun



Mikel Urdangarin

DONOSTIA

Victoria Eugenia Antzokia

Martxoak 23. 20:00tan

Azula



Antolatzailea:



Laguntzaileak:

argia



Salmenta: leihatila eta
www.kutxasarrerak.net

15 €





Azaleko argazkia:

BASERRI BIZIA

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko martxoaren 17a, 2.361. zenbakia

ASTEKO GAIA

MOZAMBIKE Ikatz koloreko etorkizuna.

ANDONI LUBAKI/MUNDUBAT / 4

PERTSONAIA

JOSE IGNAZIO LAKASTA ZABALZA: «Libertatea izan dadin, lehenbiziko betebeherra da pluralismoa».

MIEL A. ELUSTONDO / 10

IRITZIAREN LEIHOA

EMAKUMEA, ARRAZA, KLASA SOZIALA

AMAIA LASA ALEGRIA / 16

APIRILAREN 27A JAKES BORTAIRU / 18

AUTOKRITIKA ILE-UTZAI BIXENTE SERRANO IZKO / 19

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 17

TXANDAN Ruben. EDU ZELAIETA / 18

BERTSO BERRIAK Zaldi haragia. JULIO SOTO / 19

ERDIKO KAIERA

ELENA LOPEZ AGUIRRE: «Musikak ez nau do-re-mi moduan erakartzen, askoz interesgarriagoa da kultur fenomeno moduan». IKER BARANDIARAN / 20

KOMUNIKAZIOA-INKOMUNIKAZIOA Adierazpide askea.

MYRIAM GARZIA / 23

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 26

MUSIKA JOXI UBEDA / 27

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 28

ALEA Bi emakume, ez gizonei buruz hizketan, uste baino zailagoa fikzioan. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 29

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 30

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 31

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 32

TERMOMETROA

OSCAR RODRÍGUEZ VAZ: «Alderdi sozialistaren arazo latzena sinesgarritasun eza da». MIKEL ASURMENDI / 34

ALEPOKO KURDUAK Bi suterren artean harrapatuta.

DAVID MESEGUER / 38

IKERKUNTZA Aukeratu: euskara edo ospea. UNAI BREA / 40

VENEZUELA Chavez presidentea. Presidente?

OLGA RODRIGUEZ/ELDIARIO.ES / 42

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 43

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 43

NET HURBIL Neoliberalismoaz ikastaro trinkoa Amikuzen.

PELLO ZUBIRIA KAMINO / 44

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 46

ASTEKO GAIA

MOZAMBIKE

Ikatz koloreko etorkizuna

1990eko hamarkadan, gerra zibila amaituta, Portugalen kolonia ohiak kanpo merkatuetara ireki zituen ateak eta multinazionalak bertaratu ziren. Orduko aberastasun promesak, baina, ezerezean geratu dira: gutxi batzuentzat diru-iturri dena, pobrezia kondena da gehienentzat.

Testua eta argazkiak:

| ANDONI LUBAKI / MUNDUBAT |



Rio Tinto enpresa brasildarrak ikatz ustiapenerako kontratatutako langile mozambiketarra.

KEXU DA FRANCISCO. Jolasten ari den semea-ri esaten dio lur hori ez dela berea izango handitzen denean. Hemendik gutxira, beste lur batean jolastu beharko dute seme-alabek, eta horrek sumintzen du. “Ez digute aukerarik eman, bai ala bai izan da. Ikatx erreserba izugarria dago gure azpian eta hori da Jainkoak guretzako gordeta zuen zigorra. Dirua ikusi eta Gobernuak ez die jaramonik egin gure eskakizunei, arrotzak gara gure etxean!”.

Buztinezko etxola txikiz osatutako herria da Kapanga. Tete hiritik iparralderantz doan errepidea hartuta, kilometro gutxira dago. Zambeze ibaiak goxatzen ditu herriarren lursailak, udako beroan freskatuz eta onuragarriak diren limoak utziz. “Lur emankorrek dira oso. Urtean hiru tomate uzta atera ditzakegu, gure teknologia erabiliz baino ez. Pentsa zer egin ahalko genukeen European duzuen tresneria eta jakituria izango bage-nu”, dio Abiliok, lurra eskuetan hartu eta zapaltzen duen bitartean. Nazioko Nekazarien Elkartasuna elkarte (UNAC) egiten du lan. Azkenaldian beste gairik ez omen dute bulegoko mahaietan: ikatzaren ustiapenak sortu dituen nekazari errefuxiatuak. “Inguruko biztanleei erosotasun guztiak emango dizkietela esaten diete, etxe bat, argia, ura sukaldean eta komunean, lur eremu bat, tresneria, eta abar. Gero ordean, ez da betetzen eta entzungor egiten diete nekazari, bai ikatza ustiatzen duen Rio Tinto enpresa brasildarrak, baita Mozambikeko Gobernuak ere. UNACen atea irekita dituzte nekazariak, baina indar gutxi dugu Rio Tinto eta Vale multinazionalen alboan”, azaldu du Abiliok.

Iluntzen doan ikatza

Ikatza beti erabili dute Kapangako biztanleek, janaria berotzeko gehienbat. Mendietan beti izan da ustiapen txikiren bat, edota egurikatza egiten zuten inguruko basoetako egurra erabiliz. Baina 1990eko hamarkadan, ia hogeit urteko gatazkaren ondoren, Mozambike bere errautsetatik irmotzen hasi zen eta kanpo merkatuek bistaz jo zuten Afrikako lurraldea. Arrantza baliabide izugarriak zituen, baita gas ustiapenerako aukera ugari ere. Ikatzaren negozio erraldoia ere garai har-

tan ernaldu zen. Lursail handiek sekulako erreserbak gordetzen zituzten azpian eta lur aberats hori ezbehar bihurtu zen bertako biztanleentzat. Ikatza ateratzeko sistema oso agresiboa da naturarekin eta inguruan dagoen bizitza itotzen du hauts beltz eta ke artean. Hori gutxi balitz, ikatza garbitzeko erabili behar den ur kopurua oso handia da; Zambeze ibaia belztuta dago horren eraginez, eta bertan gelditu diren arrainak jatera jende txi-roa baino ez da ausartzen.

Rio Tinto eta Vale enpresa brasildarrak dira Tete inguruan minak ireki dituzten multinazionalak. 50 urteko ustiapen baimenarekin, egunean asko dira ateratzen dituzten ikatz tonak, datu zehatzik ez dagoen arren. Mendiak desagerrarazi eta bailarak kamioi erraldoiek ekarritako hondakinez betetzen dituzte. Inguruan bizi diren nekazarien fruitu eta barazkiak ilun ageri dira, jangarriak ote diren zalantzan jartzera.

Soluzio gisa, ikatz meta horien gainean bizi ziren herritarrak beste lur batzuetara aldatzeko konpromisoa hartu zuten bi multinazionalak. Baldintza onetan etxea eta lurak emateaz gain, dirua eta lana ere eskuratuko omen zieten. Promesa faltsuak. Baina enpresen abokatuek erraz isilarazi dituzte nekazarien salaketak. Hasieran gustura joan ziren nekazariak etxe berrietara, agindutako eremuetatik askoz urrunago. Horren adibidea da Kateme asentamendua, Kapangatik 50 kilometrorra. Etxeek sendoak ziruditen, eta argindarra zuten. Baina berehala konturatu ziren argia ordu gutxi batzuetan baino ez dutela, putzu komunitarioetara joan behar dutela ur bila eta lursail berriak idorrek direla, antzuak ia-ia. Lehen hiru uzta ateratzen zituzten denboraldiko, orain berriz bat ateratzeko gauza badira gaitz erdi. Lanik ez diete eman kanporatuei, bakan batzuk soilik dihardute soldatapean, euren etxea izango dena eraikitzen, ondoren kito.

Egarritz ito

Efrén-ek bere etxeko atea ireki dizkigu eta barkamena eskatu du ezer ez duelako guri eskaintzeko. “Dugun ura gaur gauean edateko da, azken egun hauetan putzutik atera dugun ura ez baita edangarria, eta Vale enpresak ekartzen digu kamioietan”, dio. Bera da bertako nekazarien ordezkaria: “Denak haserre gaude emandako lursailak antzuak direlako. Artoa dugu gure elikaduraren oinarri eta ozta-ozta atera dezakegu uzta bat. Kalitate exkaxekoa da gainera, ur gutxi edaten baitu landatzen den unetik. Askotan intsektuek jaten dituzte, oso ahul hazten direlako. Hori adierazi genien Rio Tinto eta Vale enpresakoei eta haien erantzuna onga-

Enpresen abokatuek erraz isilarazi dituzte nekazarien salaketak. Lursail berriak idorrek dira, antzuak ia-ia, uzta bakarera ateratzeko gai badira gaitz erdi. Gainera, lanik ez diete eman kanporatuei



Francisco lekuz aldatuko dute, Kateme asentamentura. Bertan eraiki dituzten etxeen aurrean ageri da, ezkerreko argazkian. Beste bi argazkietan ikus daitekeenez, uztarik ematen ez duen lur idorra da Katemekoa, eta ura putzu komunitariorik ateratzen dute.

rri kimikoak zituen kamioi bat ekartzea izan zen. Luzera badakigu ez duela etekinik emango, lurra agortu eta kutsatu egiten baitu. Guk, nekazariok, badakigu zer behar dugun: ureztatze sistema indartsu bat. Baina hemen inguruan ez dago errekarik, ezta lakurik edo putzurik ere. Ura kanpotik ekarri beharko litzateke eta garestiegia da. Tokiz aldatzea nahi dugu eta multinazionalak euren hitza betetzea. Gure arbasoen modura bizi nahi dugu, lurra landuz, duin. Besterik ez. Eta hemen ezin da”.

Bere lurrak direnak ikustera eraman gaitu Efrének. Kapangatik Katemera aldarazi zutenean eman zizkioten. Lanabesak hartu eta lurra goldatzeari ekin dio gure begien aurrean. Hondartzako arearen pare mugitzen da, ordea, aitzurra sartu orduko zulora jausten da inguruko lurra. Arto idor landara seinalatu digu hatzaz: “Begira lur honek ematen duena. Ezer ez”. Urtaro hotza izanda ere, bero itzela egiten du Katemen. Uda garaian 50 gradu zentigraduetaraino iristen da tenperatura, eta horri ur eskasia lotzen badiogu, baldintzak ez dira onak nekazari-tzarako.

50 urteko ustiapen baimenarekin, egunean asko dira Rio Tinto eta Vale enpresak ateratzen dituzten ikatz tonak. Inguruan bizi diren nekazarien fruitu eta barazkiak ilun ageri dira

“Enpresen konponbidea beti izan da ezizusia egin eta egoerak gain hartzen duenean adabakia jartzea”, kritikatu du Efrének. “Ura falta denean kamioietan ekartzen dute, lurra emankorra ez bada ongarria emango digute, medikurik ez badugu teknikari batzuek gainbegiratuko dituzte herri osoko biztanleak, kalean, eta horrela dena. Adabakia adabakien gainean”, dio haserre Frantziskok. “Hemendik gutxira horrelako toki batera eramango naute eta etorkizun hori ez dut batere gustuko. Pobreziara kondenatu gaituzte kapangatarrok, ergelak garela uste dute!”.

Kateme bisitatzeko inguruko poliziaren baimena behar da. Berdin dio herrialde osorako kazetari akreditazioa baduzu, bertako agintariak erabakiko dute nor sartu asentamendura eta nor ez. Kartzela moduan funtzionatzen du, baina kartzela honek ez ditu paretak, kilometro ugariko isolamendua baizik. Urrutiegia daude gertuen dauden herriak, ezin da oinez joan. Asentamenduan egoteko eman diguten denbora agortu da, joan beharra daukagu, arazoren bat izan baino lehen. Frantziskok, bera ere laster asentamendura bidaliko duten jakitun, hor egarri hilko direla bota dio Efréni, kezkatuta. “Itota gaude dagoeneko”, erantzun dio Efrének. Eskua elkarri eman eta Kapangara autoan itzuli gara Frantzisko eta biok.

Asaba zaharren baratzea usteltzen

Tete hiriburuan bizi dira Rio Tinto eta Vale enpresako langileak. Asko hoteletan bizi dira, kanpotarrak direlako gehienak, brasildarrak



eta txinatarrak batik bat. Ikatzaren ustiapenak beste arazo bat sortu du: klaseen arteko desberdintasun ekonomikoa areagotzea. Abiliorren esanetan, “lehen hotel bateko gela batek asko jota 10 euro balio zitzakeen. Orain, langile kanpotarrak daudenez eta afrikarrok baino diru gehiago dutenez, merkeenak 100 euro balio ditu. Zerbeza batek 5 euro balio

ditu eta lehen 50 xentimotan garagardo on bat edan zenezakeen”.

Ikatz industriak ez die onik egin Mozambikeko biztanleei. Herri txiroak ez du inongo abantailarik jaso, egur-ikatz erretzen jarraitzen dute, eta ez enpresek ustiutzen duten ikatza. “Txina, Australia eta Brasilera doa ikatz gehiena. Brasilen kasuan, ustiapenak kutsadura han-

18. korrika

EMAN EUSKARA ELKARRI

Martxoaren 14tik 24ra
Andoaindik Baionara

[Twitter](#)
[Facebook](#)
[YouTube](#)
[App Store](#)
[Google play](#)
www.korrika.org

Gobernuak lagundutako negozioa

IKERKUNTZA UGARIREN ARABERA, munduan dagoen ikatz erreserbarik handiena da Mozambike. Hala ere, ustiapena eskasa da duen potentzialarekin konparatuz. Gobernuak 50 urteko lizentziak banatzen dizkio ustiatu nahi duen enpresari. Ordainetan, enpresak diru kopuru jakin bat eman behar dio Gobernuari. Kaltetuak diren herritarrei ere konpentsazio ekonomikoa eta materiala eman behar zaie. Baina kontratuak ez du zehazten zenbateko kalte-ordaina izan behar duen edo zer den konpentsazio “material” hori.

Frelimo Gobernuko alderdia pozik dago, Barne Produktu Gordina igo baita ikatz ustiapenari esker. Kazetari eta erakundeek aitortzen dute BPG igo dela, bai, baina aurrerapen sozialek atzera egin dutela. Jendea lehen baino txiroagoa da orain.

Urtarrilean, Rio Tinto enpresa kexu zen Tetetik ikatza ateratzeko zuten zailtasuna zela-eta. Gobernuak ez dio utzi Zambeze ibaia erabiltzen minerala garraiatzeko. Hori konpontzeko trena eraikiko omen dute Tete lurraldetik itsaso-



Tete ingurua kutsadurak jota dago, ikatz ustiapenaren ondorioz.

raino eta Gobernuak jarriko du diru gehien. Herritarrak haserre daude, minerala garraiatzeko bakkrik erabiliko delako. Protestak ere hasi dituzte azken hilabeteotan. Gobernuak kanpoko erakundeek Vale enpresaren jarrera salatu dute, muturreko biolentzia erabiltzen duelako herritarren aurka, Gobernuaren ustelkeria baliatuz. Horren adibide dugu Jeremias

Vunjane mozambiketarra. Gobernuak kanpoko erakunde batean lan egiten duen kazetaria da eta Vale eta Rio Tinto enpresen inguruko artikulak kritikoak idatzi ditu. Vale enpresaren aurka idatzi zuen artikulak baten ostean, Brasilen ospatu zen Rio+20 bilerara zihoala, aireportuan atxilotu eta Mozambikera bidali zuten berriro, inongo akusaziorik izan ez arren.

dia sortzen duenez ez dute Estatuan bertan egiten, beste lurralde batzuk bilatzen dituzte horretarako, eta guri egokitu zaigu”, dio UNACeko kideak. “Jatekoa kanpotik ekarri beharrean gaude, Hego Afrikatik. Garestia eta okerrago jaten dugu orain. Askok ezin dute behar adina jan eta hiri handietako zabortege-

tara jo beharra dute, ahora zer edo zer eramateko edo zakarraren artetik saltzeko moduko zer-bait eskuratzeko. Nazio bidegabea sortu dugu, ez genuen honetarako hainbeste urtez borrokatu. Gure gurasoen landa usteltzen utzi dugu”, gehitu du Abiliok, etsita. ■








Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

arabako
bertsolari
txapelketa
2013 lotu!

finala

Martxoak 16, larunbata, 17:30ean **GASTEIZ** (Printzipal Antzokian)



Manex Agirre



Asier Otamendi



Oihane Perea



Iñaki Viñaspre



Ruben Sanchez



Jagoba Apaolaza

www.arababertsozale.org

Sarrerak salgai: www.bertsosarrerak.eu

Antolatzailea



Babesle Nagusiak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



JOSE IGNAZIO LAKASTA ZABALZA

«Libertatea izan dadin, lehenbiziko betebeharra da pluralismoa»

Hamar urte ere baditu liburuak, *La España uniforme* (Pamiela, 1999), baina irakurlearen oroimenean irauten du. Partez, egilea leial zaiolako lan hartan isuri zituen ideia sortari. Partez, hainbat urtez astean behin irratian haiek barreiatzen jardun duelako.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

...

Liburu berria dakart, oroimen kolektiboaz, pluralismoaz eta esku hartze demokratikoaz.

Lehen ere ari zinen oroimenaz eta pluralismoaz. 1999ko liburuan esan nahi dut, *La España uniforme* hartan.

Bai. Dena den, ordukoa lan kritikoa zen –horixe baita nire bizi-tonua–, eta oraingoa, aldiz, eraikitzaileago da. Hura aski oldarkorra zen, hau positiboagoa. Errateko, haserretuen aferra lantzen dut, Daniel Innerarity kritikatzen dut... Haserretuekin mintzatu bainaiz. Mintzatu eta entzun, Lakastatarrok ez baitugu entzuteko joerarik. Zuzenbide fakultatean badut, 5. mailan, gune bat, ttipia, eskuina, eta bertze bat, indartsua, haserretuena. Garai batean, Pilar-eko plazan egon ohi ziren kanpaturik, eta erran zidaten: “Eta zu, zergatik ez zatoz?”. Eta joan nintzen. Ezagutu ditut... Dena ez da eder, jakina. Badituzte alderdi negatiboak ere. Errateko, ez dute iraganaren berririk. Eta ez baitute aski leitu, ez dute iraganaren erreferentziarik. Aldiz, orainari buruzko ikuspegia arras balientea dute, arras garbia.

Iraganaren berririk ez zure haserretuek. Zer giro Zaragozako fakultatean?

Hasteko, 18 milioi euro murriztu dituzte unibertsitatean. Ez dago laguntzailerik, ez irakasle elkarturik... Ni jubilatzen naizenean, kito da nire plaza. Ez da bertzerik izanen. Adio sekulakotz! Unibertsitate publikoaren aurkako jokamoldea da, arras.

Murrizketak han eta hemen eta denean, eta hezkuntzan, osasunean, kulturean...

Ongizate estatua diote, eta irri egingarri zait. Eskolan erraten diet ikasleei: “Jo Konstituziora, ea non ageri den ongizate estatuaren aipurik”. Ez baita inon azaltzen. “Estatu soziala” da aipatzen, hagitzez gauza sakonagoa baita, Weimar-eko [Alemaniako hiria, 1919] konstituzioan ageri denez. Haien estatu soziala oraingo ongizate estatua baino sendoagoa, indartsuagoa da: Suedia, Norvegia, Finlandia, Alemanian du tradizioa, eta guk horrekin ikustekorik deus ez dugu!

Zer dugu, orduan?

Eskuin espainola Ipar Amerikako neoliberalismoak liluraturik dago. Gizarte Ikasketa eta

NORTASUN AGIRIA

Jose Ignazio Lakasta Zabalza (Iruñea, 1946). Etxauri ibarrekoa Lakasta, Uharte-Iruñeko Zabalza. “Nafarroako euskalduna naiz, XVI. mendean erraten zutenez”. Zaragozako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofian katedraduna da. Irakasle da bertan 1971tik hona. Atzerrian ere ibilia da, eta besteak beste Portugalen, Argentinan, Mexikon eta Kolonbian irakatsi du. Hegel, Marx, Gramsci eta beste aztertu zituen lehenik, eta 1999an, *La España uniforme* argitaratu zuen, non nazionalismo espainol baztertzailerik eta pluralismoaren kontrakoa ikertu eta kritikatu duen. Liburu hari tiraka heldu gara Tuterara, egileak beste bat argitaratzeko zorian duenean.



Azterketarako Fundazio FAESen [Espainia-ko Alderdi Popularraren girokoa] mintzatze-
ra nor ekartzen duten ikustea bertzerik ez
duzu. Intelektual amerikarrak dira gutiz
gehienak, eta zer diote, bada, Estatuaz? “Bai-
nuontzian itotzeko bezain ttipia izan behar
du Estatuak”. Horra metafora. Horra PP,
adierazpenak egiten dituelarik horixe bera
erraten baitu: “Estatua mehetu behar da!”.
Zergatik mehetu behar da, bada, Estatuak?
Ber maneran erraten dute agintari guziek,
kutsatu egin dira! Ezkerrak ere badio, baina,
erraten duelarik, ez daki zer erraten duen ere.
EAJk ez dakit erraten duen...

EAJ ez da eskuin?

Ebrotik behera, EAJ ez da eskuina. Ez nuke
erranen. Gustura sartzen naiz beti batzokian.
Demokratikoa da, herritarra. Kontrolatuta
ere badago, jakina. Anitz aldiz erran diet
Zaragozan fakultateko irakasleei: “Euskal
Herrian zaretela, zoazte batzokira. Handik
itzulian, erran eskuinak diren ala zer diren
batzokian”.

EAJ eskuina ez Ebrotik hegora, diozunez. *La
España uniforme* liburuan zenioen karlistak ez
zirela eskuinak, Jon Juaristiri kontra eginez.

Karlismoa oso gertakari konplexua da,
Karlo Marxek ere ikusi zuenez. Alderdi
positiborik ikusi zion Marxek karlismoari.

Patxi López

**“Aparatukoa zait, morroi abila, mugitzen ikasi du, ez
du bertzerik egin. Entzuten daki, anitz politikarik ez
bezala. Ez da distiranta, ez da kultua, baina ez da
inoren gainetik begira jartzen. Badago politikaririk, ez
distirant ez kultu, jendeari goitik begiratzeko joera
makurra duena. Menturaz, onbera naiz Patxi
Lópezekin, baina bazeneki zer ikusiak ditudan
Nafarroan. Migel Sanz eta bertze! Horrelako
ezjakinik!”.**

Urkullu

**“Apala iruditzen zait. Ikasketak egin ditu, eta kulturak
zenbat balio duen ongi daki, eta preziatzen du.
Inorekin solasean ari delarik, badaki norekin ari den.
Ez du maila eskasik, ene irudiko. Nafarroan izan
ditugun politikariak izugarriak dituzu: ez solas, ez
entzun, beren buruak bertzerik ez dituzte ikusi hauek”.**

Zioen herri mugimendua zela, bakana. So
egizu zer izan zen karlismoa frankismoan.
1952ko greba orokorra Iruñean. Nork eratu
zuen, bada? Karlistek! Emilio Majuelo his-
torialariak ongi baino hobeki aztertu du
gaia, eta badaki. 1952 orduko, badute Fran-
coren aski eskarmentu, jabetu dira ergelare-
na egin dutela. “Karlisten herria” –izen hori
ematen baitiote beren buruari–, antifrankis-
ta dira, eta Karlos Hugoren jarraitzaileak
oro ere, antifrankista dira. Espainian, Fran-
co hila delarik, Junta Demokratikoan, eta
Platajuntan, ordezkari karlista bana ikusten
ahal dugu. Frankismoaren kontra diren
indarren artean dira karlistak. Karlismoa
eskuina dela? Azter dezagun geldiro, arras
konplexua baita afera.

Karlistak. Eta liberalak?

Jo dezagun liberalismoa aztertzerara. Zenbat
liberal ziren, bada, Espainiako liberalismo-
an? Lau oilo. Izan ere, nola izan liberal eta
katoliko, aldi berean? Cadizeko konstitu-
zioaren kasua bezala. Espezialistekin ezta-
baidan jarduten dut. Liberala omen konsti-
tuzio hori, lau libere ageri direlako, baina
orduko Espainia katolikoa da, arras, eta
erranen didazu zer liberalismo den hori.
Espainiako liberalismoa, katolikoa! Eta ez
dut erran nahi katolikotasunak dena gaitza
duenik...

Zer duzu Espainiaren kontra? Espainia unifor-
me horren kontra, alegia.

Ez da pluralista.



ANDRA MARI
restaurant

Elxalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com



Zergatik behar du pluralista?

Isaiah Berlinen garaian —ene baitan eragin handiko filosofoa baita Berlin— aurkitu zutenez, pentsamenduak demokratikoa izatekotan, pluralista izan behar du, hau da, bertzeren ideiak onartu behar ditu. Ez du bertzeren ideiekin komulgatu behar, baina onartu, bederen.

Onenean, ideiak adieraztera heldu gara, nahiz eta ez diguten jaramonik egiten.

Hori ez da pluraltasuna, hori pasotismoa da. Gehienik ere, tolerantzia. Baina ez gara Tolerantziaren Aroan bizi, Pluralismoaren Aroan bizi gara, baina pluralismo ttipia dago, zinez. So egizu Kataluniara, hango nazionalismoa goiti-beheiti. Zenbat dira, bada, erreakzio demokratikoak Espainian? Erraiak dira mintzo: “Nazioa bat da... Konstituzio Auzitegiak erran du...”. Horiek dituzte argudio. Errespetua behar da, eta errespetutik hara, errekonozimendua behar da. Erreferendumak, errateko: koakziorik ez bortxarik ez dela, zein dira adierazpen askatasunaren kontrako argudioak?

“Espainia uniformea”, inondik ere.


Bai, itzuli da, hemen da berriro. Sasoi hartan gauza batek sutu ninduen, eta horregatik eskribitu nuen liburua: eskuinteko jendeak erran zuen lehenik, baina ezkerreko hainbat jende ere bat egin zuen haien diskurtsoan: Espainia. Ez zen Espainia bertzerik. Eta Prisa taldea, *Claves de Razón Práctica* aldizkaria, *El País* egunkaria... ezin jasanezko gertatu ziren. Nire liburua haien kontrako erreakzioa izan zen.

Euskal Herrian ere uniforme gara?

Ez, kontu handiagoa jartzen da Euskal Herrian. Euskadiko Alderdi Sozialistak “erregimena” erran du, EAJz ari. Ni horren kontra mintzatu naiz. Erregimenak —hala balitz EAJ—, ez luke aintzat hartuko sozialistek, popularrek edo ezker abertzaleak erraten diotena. Eta, aldiz, aintzat hartzen ditu, egun oroz. Ondorioz, ez da erregimena. Zernahi egiteko, bataren eta bertzearen bototoxoak behar ditu EAJk.

Zer dugu Nafarroan? Bateko Sanz, besteko Barcina, noiz Del Burgo noiz Catalan... UPN eta PP, sozialistak ondoan, Nafarroako Aurrezki Kutxa CAN...

Saltsa hasi bertzerik ez da egin Nafarroan. Nafarroako Aurrezki Kutxa dela-eta, botere



Tuterako Andre Mariaren katedraleko Azken Judizioko ate aurrean. Zerua ageri du irudiaren ezker aldeak, infernua eskuinak. Lakastak kontatu digunez, zera diote Tuteran: “Begira infernukoek erakusten duten aurpegi alaia, eta, kontrara, zeruan direnen aspermena!”.

judizialak ez du orain arte deus egin. Ikusiko da hemendik goiti zer egiten duen. Aspaldi erran nuen, Zuzenbidekoa naizenez: “Nola ez du fiskalak esku hartu, legearen interesean?”. Horixe baita fiskalaren egitekorik behinena: aurrezki kutxaren aferan esku hartzea. Eta zergatik ez da erortzen, goitik behera amiltzen, erregimen hau? Erregimena delako, justu. Erregimenaren ezaugarri da, berez, alderdi bat bakarrari balio izatea. Hemen, UPNri eta PSNri bertzerik ez dio balio erregimen honek. PSN da Nafarroako erregimena eror ez dadin arduradun nagusia.

Horra sozialistak azaldu!

Eta konparatu Patxi López eta Roberto Jiménez, eta Nobel saria duzu Patxi López. Ona da, bada, Roberto Jiménez! Eta gainera,



AZKEN HITZA

Tutera

“Gure aita zenak ez zuen berehalakoan sinetsiko euskarak egoera hau izanen zuenik, hizkuntza hainbertze haztea, hain ongi kontsideratua izatea. Tutera, hasteko, ikastola dugu, arazo handiak ditu, bai, baina arrakasta handikoa da. Euskarak prestigioa du hemen, eta euskaraz mintzo den anitz jende duzu Tuteran. Gure elkarte Beterin bertan ere”.

harroputza. “Euskal” den guziaren kontra abiatu dira ausarki, bandera egin dute, UPNk eta PPK, PSNrekin batera. PSNk kasu handiagoa egiten du, baina antieuskalduna da, guztiz. Nafarroako Aurrezki Kutzak, errateko, zergatik ez zuen bat egin nahi izan euskal kutexekin? Antieuskalduna delako, batetik, eta anitzek sartu duelako muturra, bertzetik. Nahieran jardun du CANek, kontrolik gabe. Botere politikoa Euskadin, edo Nafarroan, ez da ber gauza. Urkullu ez da Barcina. Mintzatu izan naiz Urkullurekin, baita Barcinarekin ere. Behin gertatu nintzen honekin. Erratera noana moztu, otoi. (...)

Moztua. Esan diguzunez, sobera kritiko jardun zenuen *La España uniforme* hartan. Bestela omen zatoz orain, eraikitzaile, liburu berrian: *Memoria colectiva, pluralismo y participación democrática*.

Argitaletxearena da izenburua. Nik *Pluralismoari buruz* nuen izenburu. Puntu.

Pluralismoa, berriz.

Bai, ene obsesioetarik bat dut. Ene irudiko, libertatea izan dadin, lehenbiziko betebeharrak da pluralismoa. Horra Sortu eta Bilduren kasuak. Lege aitortzaren alde izan naiz beti, Alderdien Legearen kontra, presoan dispersioaren kontra, eta, aldi berean, biolentzia eta bortxaren aurka. Gure herrian joera indartsu bat dagoela onartu behar da, eta pluralismorik gabe ez dago errekonozimendurik. Isaiah Berlin dugu hor berriz. Tolerantziak ez du iritzi berekoa ez dena ezagutzen, indartsuak “hor nonbait” izaten uzten zaitu. Horixe da tolerantea. Pluralismoa, aldiz, errekonozitzea da, gizartearen baitan diren joera guziak ezagutzea. Pluralismoaren azterketa historiko filosofikoa egiten dut, Kantekin hasi eta hona.

Ibarretxe

“Radio Euskadin izaten ziren solasetan anitzetan mintzatu nintzen sozialisten politikaren kontra, eta, menturaz horregatik, afaltzera eraman ninduten behin halako batean. Ibarretxek austeritatea zuen lege, menturaz, eta jakina, ni nafarra izaki, austeritateak ez dit onik egiten. Patxi Lópezek Ibarretxek baino hobeki eman zigun jaten”.

Esku hartze demokratikoa.

Liburuak duen atal berriena duzu, eta zabalea. Proudhonekin hasi naiz. *Bien pensanteek* kritikatu egiten dute Proudhonek, boto zuriaren aldeko zelako, baina, bertzeak bertze, hura nola iristen den horretara aztertu dut. Proudhonek badu haserretuen antza. Parlamentariak lau urterik behin hautatuak zirela ikusi zuen, baina ez zutela herritarren arazorik konpontzen. Ez zen boto zuria emanez jaio. Portugalgo À Rasca mugimendua ere aztertu dut, “Demokrazia zerupear”, M-15 mugimendua baita hori.

Haserretuak Portugalen, haserretuak Zaragozan, Madrilan... Zergatik dute haserretuek indar txikiagoa Euskal Herrian?

Eta zergatik izan zuen Irakeko gerraren kontrako mugimenduak indar txikiagoa Euskal Herrian, Espainiako beste inon baino? Abertzaletasunak badituelako alde onak, eta txarrak ere bai. Haserretuen mugimendua zer da, bada, Espainiako kontua? Irakeko Espainiaren kontua zen? Ergelkeria handiagorik! Zaragozan errana dut, jendea haserretuen mugimenduaren kontra mintzatu izan denean: “Noiz ikusi da Zaragozan tamainako jende mugimendua? Pilareko plaza gaztez estalia! Noiz?”. Banuen kezka, mugimendua hustuko ote zen. Zerbait hustu da Portugalen, baina hor dira, saudadeak joak. Ari naiz, baina haserretuak ere kritikatzeko ditut nik.

Nor, edo zer, ez duzu kritikatzeko zuk?

Pentsamendu errepublikarra, liberala, federala, errespetuzkoa, pluralista... Horixe ez dut kritikatzeko. Baina ez dut pentsamendu hori inon aurkitzen. ■



NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

13

LA SARE SOZIALA

FINALA

MARTXOAK 23 LARUNBATA
17:00etan

IRUÑEKO ANAITASUNA
KIROLDEGIAN



SARRERAK SALGAI : WWW.BERTSOSARRERAK.EU

Antolatzailea:

Laguntzailea:

argia





DANI BLANCO

**Amaia
Lasa
Alegria**



IDAZLEA

Emakumea, arraza, klase soziala

HIRU EZAUGARRI horiek bat egiten dute Angela Davisengan, joan zen gizaldiko 70eko urteetan gazte ginenontzat oso eza-gun bihurtu zen emakume afroamerikarra. Nor dugu Angela Davis?

Duela 69 urte Alabaman –AEBetan– jaio zen esklabo jatorriko familia batean, lurralde honetan arraza bereizkeria gorri-gori zegoen garaian. Bere gurasoek, batak zein besteak, beltzentzat soilik egindako ikastetxeetan egin zituzten ikasketak, Angela ez zen salbuespena izan. Lehen Hezkuntza eskola horietako batean burutu zuen, zuri- eskolak baino baldintza askoz okerragoetan. Bere auzoari Dinamyt hill –Muin dinamitua– deitzen zioten, Ku Klux Klanekoek maiz leher-tzen baitzituzten dinamitaz familia afroamerikarren etxeak.

Hamalau urte zituelarik New Yorkera joan zen bizitzera amarekin. Hiri horretan beltzak eta zuriak berdintasunean ikas zezaketen ikastetxe batean bigarren hezkuntza bukatu zuen. Ibilbide luze baten ondoren filosofian graduatu zen. Dokto-regoa Herbert Marcuse filosofoaren gidaritzapean lortu zuen. Kalifornian Los Angelesko Unibertsitatean irakasle lanetan hasi zen.

Angelak ihes egin zuen, FBIk kriminalik bilatuenetako bat bihurturik, mundu osoan ezagutu genuen heriotza epai izateko arriskuan zegoen andre ausart hura. Azkenik, New Yorkeko motel batean aurkitu, espetxeratu eta epaitua izan zen, hamasei hilabete gelaxka batean igaro ostean

Arraza beltzaren eta emakumearen askatasuna klase borrokatik at ezin direla geratu pentsaturik, 1968 urtean AEBetako Alderdi Komunistako kide egin zen. Urte horietan espetxeratuta zeuden pertsonen bizi baldintzak hobetzeaz arduratu zen. *Soledad brothers* izeneko auzian sartuta zegoelarik, 1970eko abuztuaren zazpian hilketa batzuk gertatu ziren Soledad anaiak epaitu behar zituen epaitegian.

Angelari leporatu zioten hiltzaileek erabili zituzten armen jabe izatea.

Angelak ihes egin zuen, FBIk kriminalik bilatuenetako bat bihurturik, mundu osoan ezagutu genuen heriotza epai izateko arriskuan zegoen andre ausart hura. Azkenik, New Yorkeko motel batean aurkitu, espetxeratu eta epaitua izan zen, hamasei hilabete gelaxka batean igaro ostean. Pertsona zuriak soilik osatutako epaimahai batek errugabetzat jo zuen auzi guztietan. Orduan, Kaliforniako gobernadore Ronald Reaganek galarazi zion lurralde horretako unibertsitateetan klaseak ematea. Hala ere, gaur egun Kaliforniako Santa Cruz Unibertsitatean irakasle lanetan dihardu.

Ez da denbora luze *Emakumea, arraza, langile klasea* bere liburua ezagutu dugula. Saiakera sakon, argi eta zehatz honen bidez emakume beltz eta esklaboen bizitza erakusten digu bere gordintasunean, ohartarazten gaitu ere andre horien askatasunaren bideak eta emazte zuri- feminismoaren nola elkar gurutzatu ziren, hauek askotan haien zapaltzaile bihurtzen zirelarik.

“Sistema esklabistak esklabo beltzak ondasun higigarritzat hartzen zituen, emakumeak gizonak lez ekonomikoki errentagarriak, lan indar banakakoak bezala hartuak ziren, generorik gabekoak euren jabeentzat. Andre esklaboa lanaldi osoko langilea zen, noizbehinka soilik emazte, ama edo etxeokoa”.

Davisek zera kontatzen digu ere, emakume esklaboek gizonengandik dituzten desberdintasunagatik modu berezian sufritzen zutela: sexu gehiegikeriak, andreak bakarrik jasan zitzaizkien tratatu txarrak.

Angelak adierazten du esklabotza garaietatik aurrera sexualitatea bereziki azpimarragarria izan dela afroamerikarrentzat. Sistema esklabistak askatasun ekonomikoa edo politikoa ukatu ziela esklaboei, baina ez askatasun sexuala, jaunei horien ugalketa komeni baitzitzaien. Libreak ez ziren pertsonentzat sexua askatasun adierazpenaren errealitate ukigarria bihurtu zen. Gaur gazte suminduengan konfiantza osoa duela adierazi du, horiek baitaukate sua. ■





<Zein da euskara edo beste hizkuntza bat ikasteko
gakoa? MAITASUNA > J.J. Ibarretxe ALC-ko burua *

emaitazu
ESTATUKO
LEGEAREN BORTXA
ETA PRIBATUAN ATXIK
MAITASUNA

ANC : Hegoafrikako apartheidaren suntsitu
zuen erakundea

ANC : Kataluniaren independentzia berresku
ratzeko erakundea

ALC : EAJKO funtzionarietzat New Yorken
* ireki duten sustapen-bulegotxoak



Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA ♦



DANI BLANCO

Apirilaren 27a

PASA DEN otsailaren 18an prentsan ikusi izan dugun argazkia apartekoa zen. Alabaina, Hautetsien Kontseiluak, Garapen Kontseiluak, Baionako Merkataritza Ganbarak, Iparraldeko Auzapezen Biltzarrak eta Batera plataformak Euskal Herriarendako Lurralde Kolektibitatearen proiektua elkarrekin eramateko koordinazio bat osatzen zutela adierazi zuten. Ondoren bazuten instituzionalizazio proiektu hori Marylise Lebranchu ministroari aurkeztu zion delegazioa ere. Hots espektro politiko guzia ordezkaturik zen, abertzaleengandik hasiz UMPraino, sozialistak, berdeak eta zentristak barne.

Aurrekaririk gabeko gertakari politikoa da koordinazio hau eta Ipar Euskal Herriko ezagupen borrokaren fase honetan, tresna ezin egokiagoa. Urtetako lanaren uzta bada ere, 2012garren urtean ezagutu dugun azelerazioaren emaitza zuzena da. Urte osoan, lurralde elkargoaren proiektua modu parte hartzailean sakon ikertu eta definitua izan da eta ondorioz usaiazko sektoreak haratago, atxikimenduak zabaldu dira klase politikoan ere.

Azaroaren 24an, koordinazioa osatzen duten gainerateko entitateen bidea jarraikiz, Hautetsien Kontseiluak aho batez berretsi zuen Lurralde Elkargoaren galdea. Segida logikoa zen eta hiru hilabeteren

buruan naturalki azaleratu da : indarrak uztartu Euskal Herriko boza entzun arazteko Parisi begira.

Euskal Herriko deus ez bada irabazia, oraindik dena posible da egutegi legislatiboak markatzen duen garai honetan. Alabaina, heldu den apirilaren deszentralizazio fase berria finkatuko duen lege bat aurkeztuko du Gobernuak Frantziako Parlamentuan. Instituzio ezagupena ukatzeko urtetan erabili argumentuak bat bestearen ondotik erori zaizkio frantses gobernuari. Landutako proiektua borobildua da, sinplea, demo-

kratikoa eta indartsua. Garai batez aipatzen ziren bestelako antolamendu administratiboek ez dute gainditu gogoeta eta eztabaida fasea. Hots fruitua onduta da. Erori beharko da, erortzekotan da.

Sorturiko koordinazio hori lanean hasiko da Lurralde Elkargoaren egitasmoa jendarteratzeko eta Gobernuak nahiz Parlamentuak proiektua kontutan har dezaten. Iniziatiba eta hitzordu nagusiak finkatuak izan dira jadanik: Hautetsien Kontseiluko mozioa auzapezei izenpetzea galdegina izanen zaie eta apiri-

Instituzio ezagupena ukatzeko, urtetan erabili argumentuak bat bestearen ondotik erori zaizkio frantses gobernuari. Landutako proiektua borobildua da, sinplea, demokratikoa eta indartsua

laren 27an herri mobilizazio handia izanen da Baionan. Dudarik gabe azken urteetako mobilizazio garrantzitsuenetarikoa Iparraldeko jendartearentzat. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Ruben

TURISMOA ikasi eta gero lan on zenbait eskuratu omen zituen hainbat urtez; Guggenheimen edota Bilbo-Portsmouth bidea egiten duen ferryan, kasurako. Hain zuzen, itsasontzian zebilela ezagutu omen zuen oraingo bikotea, duela hamar urte pasatxo. Hondarreko urteotan, aldiz, gero eta enplegu kaskarragoetan jardun du Rubenek. Azkena, gaurko enkontruan esan dizunez, *superminijob* izan da: bi orduko kontratazioa kamioi bat deskargatzeko.

Aspaldi ez zenuen nerabazaroko laguna ikusten. Noiztik zauden hura ikusi gabe ez zenuke zehazki asmatuko. Rubeni esker jakin duzu elikagaiak testatzen dituen

enpresa batek hiru euro ordaintzen dituela dastatzeko probetan parte-hartzearen truke, eta, hiru euroak osorik irabazteko, oinez joan beharra dagoela dastatzeko lekura.

Ezusteko egoera, baina, geroxeago etorri da, negarrez lehertu denean bat-batean: zeure burua ikusi duzu 1,80 metro luze inguruko ezaguna zure besoetan eusten, dorpeki babesten. Une horretan jabetu zara itxurak iradoki adina kilo soberan dituela. Barkamena eskatu dizu, guztiz lotsaturik. “Tira, zeuri behintzat ongi joan zaizu, ezta?”. ■





Bixente Serrano Izko

♦ IDAZLEA

Autokritika ile-uztai

GEHIEGITAN gehienbat, autokritika, auto-apologiaren edergarri. Ile-uztai. Gaur egun, bizi garen garaiotan, autokritikaren oinarria ezinbertzekoa du edozein erakundek bere funtzioak eta jarduerak auto-ebaluatzerakoan. Autoebaluazioa izan ohi den horri deitzeke, autokritika kontzeptua lehenesten da erakundearen asmoak definitzen dituen agirian. Holaxe ere bai Euskal Herrian sortu zaigun alderdirik modernoenean: “Bide horretan, kritikak eta autokritikak funtsezko betekizuna izango du” diosku, berehala zehaztuz autokritika zer den, gehienbat, hots, auto-ebaluazioa: “Boluntarismoa, inprobisazioa eta emaitzen gaineko balorazio eza gaidintzeko modua da”.

Emanen luke, halarik ere, Sortu bezalako alderdi politiko batek, tradizio sendo batetik datorrenak, tradizio horren gauzapean politikoaren bilakaera gisa sortu den horrek, emanen luke, diot, adierazi beharko lukeela zergatik sortzen den, zergatik ez duen balio formula zaharrak, zer akats izan zituen itxurazko metamorfosia egin behar izateko. Bada, ezertxo ere ez horretaz bi ponentzia garrantzitsu eta luzeetan. “ENAMen erreferente dinamikoa eta nazio askapenerako eta eraldaketa sozialerako prozesuaren motorra izateko helburuarekin jaio da”. Alajaina! ENAMi ezer gertatu izan ez balitzaio bezala bere bilakaeran, ENAMek izanen ez balu bezala zertaz hausnartu eta zertan ebaluatu bere esperientzia. Badu, bai, “ENAMen bilakaera estrategikoa” izenpean zazpi puntu, baina batere ez doa autokritika gisa. Alderantziz, “aldaketa sozio-politiko zein abagune berrietara egokitzeko buruturiko birmoldaketa estrategikoak eta antolaketa-

koak” bizi izan ditu. Alegia, autokritika oinarri gisa, baina auto-apologia gisa aplikaturik: “Abagune berrietara egokitzeko” jakinduria gisa.

Autokritikak, jakina, ez du zertan izan autozigorrik. Autokritikak ere bere mugak behar ditu, bere helburu positiboak, bide berriak jorratzeko indar eta kemenaren pizgarri izan behar. Baina definizioz mugek guneren bat mugatzen badute, nola mugatu gunerik ez duen autokritika?

Autokritikak bere mugak behar ditu, bide berriak jorratzeko kemenaren pizgarri izan behar. Baina definizioz mugek guneren bat mugatzen badute, nola mugatu gunerik ez duen autokritika?

Ongi etorri berriro mapa legalera inoiz desagerrarazi behar izan ez zukeen ENAMen adierazpen politiko hau (jende anitzek hartu genuen parte lege kanporaketa haren kontrako plataformetan). Ongi etorri Sorturen definizio politiko berria, egokitze saioa abagune berrira. Aitortu behar: zaila da, zaila denez, estrategia politiko-militarretan buru-belarri murgildurik ibili diren guztiak egokitzen politiko hutsera ekartzeak. Baina gutxienezko autokritika falta isla adierazkorregia zait: zein urrun dagoen oraindik puntu politiko gehienetan gaurko abagune berrira egokitzen. ■



BERTSO BERRIAK

Zaldi haragia



XDZ

Julio Soto

♦

Doinua: Egun berezi bat.

Gizakiaren oinarritzkoen beharra, elikadura lehen ez bezala, esku arrotzek kontrolatzen duten hura. Arazoa ez da zaldia saldu digutela behi modura arazoa da ez dakigula zer sartzen dugun barrura.

Haragi gorri deitzen diegun artean lehen mailako besteek baino koipe kopuru gutxiago daukalako. Ordea ez da informazio hori ematen belako gainontzekoak kontsumitzea interesatzen delako.

Gure aitona tratantea zen eta bi osaba orain zintzarri hotsei segika, urritz makilarekin gainez gain. Inor balego kalitatezko zaldikia jateko zain Gorritira joan besterik ez du han ibiltzen naiz behortzain. ■



Musikak ez nau do-re-mi moduan askoz interesgarriagoa da kultur

Euskal Herriko musika taldeak zabalen ikertu dituen kazetaria dugu Elena Lopez Aguirre gasteiztarra (Pablo Cabezaren baimenaz). Egin egunkariko *Bat, Bi, Hiru* gehigarrian aritzen lanean, eta Potato taldeko gitarra-jotzailea izan zen. Pedro Espinosa kazetariarekin batera Aianai kultur elkarte eta argitaletxea sortu zuen, eta zenbait liburu argitaratu ditu musika testuinguru hartuta: *Hertzainak, la confesión radical*; *Del txistu a la telecaster*; *Potato reggae banda: la utopia de una Euskadi Tropical*; *Historia del rock vasco*.



JOSETXO ARANTZABAL

erakartzen, fenomeno moduan»

| IKER BARANDIARAN |

Noizkoa duzu musika zaletasuna? Amaren "errua" izan zen?

Bai. Aitonak Bethoven-en piezak interpreta-tzen zituen. Eta aitaren aldetik, Ortiz de Zaratetarrek, pianoaz edozein kantu atera-tzen zuten. Beti izan dugu etxean abesteko eta musika jotzeko ohitura. Gainera, familia ugari bateko txikiena izanda, musika asko jaso dut neba-ahizpengandik. 9 urte nituela, the Beatles-en EP bat erosi nuen neben gomendioz. Horren ostean, rock sinfonikoa ezagutu nuen. Gerora, 24 urte nituela, punkak eztanda egin zuen eta erabat zaletu nintzen. Gainera, DIY formula ezagutu genuen, boluntarismoa eta jotzen jakin gabe saiatzea. Garrantzitsua zen, ordura arte Genesis entzuten genuelako. Pentsa!

“Rocka eta oro har musika kultura da. Norbere burua eta ingurukoak ulertzen saiatzea da kultura, eta horrek liberazioa dakar”

Kazetaritzan bide luzea egin duzu.

Pedro Espinosak, Josean Cantalapiedrak eta hirurok Radio Cadenako FMa jarri genuen martxan, 1983an. Pedro *Egin*-eko *Bat, Bi, Hiru* gehigarrian hasi zen lanean. Gero Radio Vitorian hasi zen; eta nik *Bat, Bi, Hiru*-n jarraitu nuen, baita egunkari bereko *Arabian Zehar* atalean, *Musikaz Blai* izeneko orrialdea egiten. Gaur egun irratian jarraitzen dut.

Potato taldeko gitarra jotzailea izan zinen. Horetaz, ez zara musikari frustratua...

Ez, 3 urtetan 3 disko grabatu nituen: Tijuana In Blue-rekin erdibana egin genuena, Punky reggae party eta Rula. Gero taldea utzi eta luzaroan penaz egon nintzen, agertokiak menpekotasuna sortzen duelako: energia hori, jotzea, dezibelioak... Hertzainak-eko Kikeren amesgaiztoa, abestiak ez gogoratzea zen; eta nik Potaton jarraitzen nuela amesten nuen. Baina kazetaritzako bidea hartu nuen, ondo egiten dudala iruditzen zait. Gainera, zenbat eta informazio gehiago izan, orduan eta hobeto egin ditzakezu gauzak. Euskal Herriko rockaren entziklopedia existitzen

bada, musikaria izan naizelako izan da, eta ikusi dudalako musikari ugariz inor ez dela oroitzen; horrek gaizki sentiarazten nau. Jende asko gogoratzen da RRV deiturikoaz, euskal rocka orduan hasi zela uste da. Baina horien aurretik beste talde asko egon ziren. Egan-eko Xabier Saldiasek esan zidan haiek disko ugari egin zituztela, baina inork ez dituela gogoratzen. RRVren aurrekoa ez dago prentsan jasota. Eta hori, gogoratu ezean, betirako ahaztuko da.

Aspaldi taldeak izan zituztenei-eta blogak egiteko aholkua ematen diet, informazioa zabal dadin. Garrantzitsua da Robert Johnson nor den jakitea, baina gure ondarea zain-tzen ez badakigu Ez Dok Amairuk aipatzen zuen malefizioa ez da inoiz desagertuko.

Rocka askapen instrumentua izan da luzaroan. Gaur egun potentzial bera dauka?

Bai! Niretzat rocka eta oro har musika kultura da. Norbere burua eta ingurukoak ulertzen saiatzea da kultura, eta horrek liberazioa dakar.

Dagoeneko erakundeak hasi dira rockari garrantzia ematen, ezta?

1975ean Burgosen kontzertu erral-doi bat egin zen, eta *Diario de Burgos*-ek “*La invasión de la cochambre*” titulatu zuen aldenik alde. Konpa-ratu, adibidez, hedabideek Azkena Rock jaialdiaz diotenarekin. Seguruenik jendetza batzen dutela ikusi dutelako, eta hirirako negozio han-dia ere badelako. Gaur egun, jaial-diez hitz egiterakoan, ostalaritzari buruz hitz egiten da, eta berdin dio zer taldek joko duten. Bestalde, lehen Gaztetxeak oku-patu egiten ziren, orain batzuk udalak utziak dira, kultur etxeak ere gogor dabil-tza, eta kontzertu areto txukunak daude. Zerbait egi-ten da, baina museo, unibertsitate eta funda-zioek askoz gehiago egin dezakete musika hobeto jasota egon dadin.

Hertzainak-en liburua atera zenutenean, jende askori esan nion, taldea gustuko izan edo ez, garai bat deskribatzeko balio zuela. Euskal Herriko Rockaren entziklopediarekin gauza bera gertatu zitzaidan.

Bai, egia da. Hori da nahi duguna. Halako kan-tuak zubia edo chorus bat duela esatea... Musika ez zait do-re-mi moduan interesatzen, kultur fenomeno moduan askoz interesgarri-go da. Orain Musikene dago, Baina musikari buruzko ikasketa kulturalak falta dira. Testuin-gurua zehaztea oso garrantzitsua da, testuin-guruan kultura dagoelako, gauzek euren artean duten zerikusia, ezer ez baita isolatuta gerta-tzen; eta Euskal Herriko musika ez da sal-



buespena. Adibidez, nazioarteko testuinguruan kantu protesta bogan zegoelako existituzen Ez Dok Amairu, eta orduan gazteriak indarra eta protagonismoa hartu zituelako.

Entziklopedian jasotako Emakumeak In Rock atalak aurreiritzi asko apurtu zituen.

Muskaria eta *El Tubo* guztiak irakurri nitueanean emakume guztien izenak apuntatu nituen. Uste okerra dugu, rockean ez dela emakumerik egon. Agian ez dugu protagonismo handirik izan, baina presentzia bai. Emakumeez osaturiko taldeei ematen zaie garrantzia, baina baxu eta teklatu jotzaile ugari egon dira. Batzuek diote emakumeen errua dela. Neurri batean arrazoa daukate, baina begira nola egurtu zuten Vulpes taldea. Eta Aurora Beltranek esandakoa: emakumeoi listoia altuago jartzen digutela.

Jende askori kosta egiten zaio fisikotik harago ikustea. Emakumeok eskema horiek apurtu eta jendeak ikusi nahi duena ahazten saiatu behar gara, baina ez da erraza. Uste baino askoz gehiago gara. Hala ere, Anariren moduko espresibitatea duen emakumerik 60ko hamarkadan irudikatzea oso zaila da, edo Ainara Legardon.

Esportagarria da hemengo musika?

Baietz uste dut. Baina, euskaraz abestutakoa ez da benetan esportatzen. Hertzainak-ek aspaldi esaten zuen euskal rockak hemendik

«Gaur egun oso garrantzitsua da Robert Johnson nor den jakitea, baina gure ondarea zaintzen ez badakigu Ez Dok Amairuk aipatzen zuen malefizioa ez da inoiz desagertuko».

kanpo zirkuitu marjinaletan funtzionatzen duela, gune erradikaletan, okupatuetan. Ruperrek ere esan zuen ez dela erakunde publikoen borondaterik izan hemengo musika esportatzeko.

El Tubo, Bat Bi Hiru, Devorame, Gazte Algara eta *Barkatu Ama* bezalako argitalpenek 80ko eta 90eko hamarkadetan bete zuten funtzioa oso garrantzitsua izan zen musika taldeen berri emateko. Zer erreferente daude gaur egun?

Entziklopedia egiteko *Zeruko Argia* ere sarri kontsultatu nuen, batez ere *Gazte Naiz* izeneko orrialdea; sasoi batean musikaz gehien jaso zuen argitalpena izan zen. Aipatutakoez gain, asko erabili ditut Badok.info, Entzun.com, eta eraberritutako Mamorro.

Orain dagoena sinesgaitza da 80ko hamarkadatik begiratu. Batzuek diote Internet oihana dela, baina bejondeiela, lehen zegoena basamortua zelako. *Bat, Bi, Hiru*-ren garaian askotan ez geneukan elkarrizketak non sartu. Orain Interneten ez dago mugarik. 18 urte banitu, Internet txiki geldituko litzaidake.

Zer eman dizu zuri rockak?

Gauza txar batzuk bai, baina gainerakoa ona. Jim Morrisonek esaten zuen rocka gure laguna dela, eta arrazoa zuen, ez da metafora bat. Batzuetan blokeatuta zaude, itxita, eta musika leiho bat da hortik ateratzeko. Nerabeak kaskekin ikusterakoan isolatuta daudela iruditu izan zait; baina ez, konektatuta daude. Musika energia da. Askotan pentsatu dugu sexua, drogak eta rock-and-rola batera zihoazela, baina ez da egia, drogek energia kentzen dizutelako, batez ere heroinak. Musika, aldiz, energia da, droga.

Liburu berria prestatzen ari zara?

Bai, Tori Amos-en honako esaldia irakurri nuenean jaio zen liburu berri honen ideia: “Emakumeez gehien arduratzen nauena zera da, gure burua gutxiesteko dugun joera”. Egia da. Horregatik, musikagintzan gogor lan egin duten hainbat emakume anonimotasunetik ateratzea erabaki nuen. Oraingoan data zehatzetatik aldendu, eta pasarteetan eta testigantzetan oinarritu nahi dut. Ezezagun samarrak diren hainbat emakume aukeratu ditut, Esate baterako, Begoña Larrañaga, gipuzkoarra sortzez, baina Bilbon hazitakoa. 60ko hamarkadan hainbat taldetan aritu zen munduan barrena akordeoia eta teklatura jotzen. Eta Arantxa Gurmendi, Biurriak taldekidea. Baita *Muskaria*-ko argazkilaria Marivi Ibarrola ere. Edo Carmen San Esteban aktorea, Potatoko ahotza, dantzaldietako abeslaria, aurkezlea, performance zalea... ■



Adierazpide askea

Inkomunikazioa komunikazioaren osagaia ere bazela zioen Mikel Laboak, Lekeitio ezagunean. Berba askea, pentsamendu librea eta lengoaia garaikidea erabat moldatzen zituen Laboak, gure tradizioa eta gaurkotasuna batzen. Diskurtso honetan, Laboari ikasitako hizkeran edota jokoan oinarritzen da Ttanttaka antzerki taldearen eta Kukai dantza konpainiaren azken lana. Bilboko Arriaga Antzokiak ekoizpenean parte hartu du eta honek merezi duen tamaina eman dio ikuskizunari. Musika zuzenean, antzerkia edota hitza, eta, dantza edota mugimendua biltzen dira *Komunikazioa-Inkomunikazioa* obran.


| MYRIAM GARZIA |

Argazkiak: Arriaga Antzokia

IKUSLEAK eserlekuak dauden patiora sartzerako, dantzariak, aktoreak eta musikariak taula gainean dira dagoeneko. Luzatze ariketak egiten ari dira dantzariak, musikariak berbetan, aktoreak barrez. Dena distentsio, tentsio une hauetan.

Bi aulki lerrok mugatzen dute espazio eszenikoa, parez pare. Antzezleak euren eserlekuan jarri dira apurka-apurka. Antzezpena hasteko bi minutu falta direnean –oihalaren gainean proiektatutako kronometroak argitu digu datua–, antzezleak altxa eta eszenatoki-





tik atera dira. *Komunikazio-Inkomunikazio* doinuaren lehen notak entzun dira. Mikel Laboaren hitz aldrebes eta adierazkorrak J.S. Bachen *Pasioa Mateoaren arabera* lanarekin nahasten dira, egun, oraindik ere, edozein txundi dezakeen pieza horrekin.

Tradizioa eta garaikidetasuna, Mikel Laboak erakutsitako hizkuntza moldea presente dira une oro Tanttanka antzerki taldearen eta Kukai dantza konpainiaren *Komunikazio-Inkomunikazioa* obran. Elkarrekin ondu duten laugarren lana dugu haxe. *1937, Gogoaren bidezidorretatik* (2002), *Otebitzari biraka* (2005) eta *Hmuy Illa* (2008) ditugu aurrekoak. “Askori zer edo zer esango dio izenburu honek. Guk inspirazio iturri bezala hartu dugu, Mikel Laboari ikasitako jokoa luzatuz. *Komunikazioa-inkomunikazioa*ren begiekin so egin ohi zuen Mikel Laboak, eta inspirazio iturri honek irekitako leihoetan ipini dugu arreta”. Halaxe azaldu zuen obraren funtsa Mireia Gabilondo Ttanttakako kide eta antzezlanaren zuzendariak. Gizabanakoak, kolektibitateak, mundua edota unibertsoa etengabeko harremanetan ari dira, komunikazioan edo inkomunikaizoan. Hori adierazteko, antzezpenean hizkuntza ugari erabili dira. Disziplina nagusiak musika, mugimendua eta hitza badira ere, euskara, gaztelania, ingelesa, poloniera, alemaniera eta beste hainbat hizkuntza asmatu erabiltzen dira ikuskizunean.

Bederatzi antzezle (Aitor Beltran, Miren Gaztañaga, Eneko Gil, Helena Golab, Ibon Huarte, Alain Maya, Urko Mitxelena, Iñaki Telleria eta Nerea Vesga) aritu dira Kukai konpainiako Jon Maya koreografoaren gidaritapean. Konpainiatik kanpo, beste bi dantzariren kolaborazioa izan dute. Bat Israel Galvan dugu. Dantzari flamenkoa da jatorriz, baina molde garaikidean aritua eta murgildua.

Komunikazioa-Inkomunikazioa obrak Mikel Laboaren lana du oinarri. Haren abestiek eta musika tradizionalak osatzen dute soinu-banda. “Eszenatoki hutsean gure nahiak eta beldurrak” jarri dituztela adierazi zuen Mireia Gabilondo Ttanttakako kide eta obraren zuzendariak.

Bestea Kepa Artetxe da, eskarmen-tu handiko euskal dantzaria.

Jon Maya koreografoak adierazi zuenez, “*Komunikazioa-Inkomunikazioa* ez da kasualitatez etorri, hainbat faktorek eragin dute lan hau aurkeztea. Kukaik eta Ttanttanka 10 urte daramatzate elkarrekin lanean, eta bide honetatik gauza asko egin eta bizi izan ditugu batera. Gure lana beste testuinguru batera eraman nahi izan dugu oraingo honetan. Ohiko dantzarietz gain, beste lagun batzuk ere ekarri ditugu gure artera. Urte askoren ondoren, ondo mamitutako lana da”.

Inkomunikazioa, komunikazioaren parte

Mikel Laboaren abestiek eta euskal musika tradizionalak osatzen dute antzezpen honetako soinu banda. *Komunikazio-Inkomunikazioa* eta *Lekeitioez gain, Lili bat* (Mikel Laboa, Joseba Sarrionaindia), *Denbora galduaren bila* (Mikel Laboa), eta *Elgeta* (Herrikoia, Andoitz Anzizar) abestiak dira antzezleek dantzatuko dituzten piezak. Laboaren diskoa 1988an argitaratu bazen ere, *Komunikazio-inkomunikazioa* 1977an estreinatu zuen, Luis Llachen kontzertu batean. 25 minutuko abesti honek aho bete hortz utzi zituen hara bildutako guztiak. “Hura bizi izan genuenontzat aurre-rapauso handia izan zen”, gogoratu zuen Mireia Gabilondok aurkezpenean. “Komunikatzeko beste modu bat erakutsi zigun. Mike-li ez omen zitzaion gustatzen inkomunikazio hitza, inkomunikazioa komunikazioaren parte bezala ulertzen baitzuen. Aske zen nahi zuena egiteko eta esateko, hitz argirik erabili gabe, asko adierazteko ahalmena baitzuen.



E. MORENO ESQUIBEL



E. MORENO ESQUIBEL

Hori egin nahi izan dugu, eszenatoki huts batean gure nahiak eta beldurrak jarri”.

Jon Mayak, berriz, Laboaren lana inspirazio iturri izan dutela, baina askatasun osoz jokatu dutela erantsi zuen. “Abeslariak egin zuen bezala, lan honetan ere tradizioak eta garaikidetasunak bat egiten dute, batez ere dantzari dagokionez. Espazio komun batean bizi dira biak, dantza tradizionala eta garaikidea, gu eremu horretan murgildu gara. Euskal dantza tradizionaletik abiatu gara egungo lan bat sortzeko. Kukairen ezaugarrietako bat tradizionala eta garaikidea nahastea da, baina lan honetan harago jo dugu. Erabili ditugun espresio molde guztietarako eremu komun baten bila aritu gara”.

Forsythe abanguardiarako dantza konpainia-ko Jone Martin izan dute koreografo laguntzailea, eta harekin aritu dira espazio komun horren bila.

Atzokoak eta gaurkoak bat egiten dute lan honetan, denborak ez baitu etenik, esperientziak bildu egiten dira, eta gogoak batu. Biharri egindako keinua dugu *Komunikazioa*


Inkomunikazioa. Bilboko Arriaga Antzokian estreinatu den lana ikusteko beste bi aukera daude: martxoaren 21ean, Donostiako Victoria Eugenia antzokian bata, eta apirilaren 12an, Gasteizko Principal antzokian, bigarrena. ■





URKIOLA
Sagardotegia

Igara 37 - Ibaeta auzoa · 20018 Donostia
☎ 943 21 01 68



Haur eta gazte literatura

Kili Txikia
Mario Ramos

Itzulpena: Aztiri itzulpen zerbitzuak
Ttartalo, 2012

Diktaduraren kontra

“LEO TXIKIA ZEN, oso txikia, baina promes handiak zituen eginak. Errege izendatu zuten egunean, festa izugarria egin zuten, eta animalia guztiak gonbidatu zituzten”. Hitz hauekin, eta lehoi goxo eta sinpatiko baten irudi handiarekin hasten da Mario Ramos, 2012ko hondarrean zendu zen sortzailearen lan hau. Leo errege izendatu, eta apurka-apurka gero eta indar handiagoa erabiltzen hasiko da herritarren kontra, baita diktadura ezarri ere. “Zenbat eta gaiztoago, orduan eta handiago sentitzen zen, izugarri handi. Tronuaren gainetik zutik, eguneko umorearen arabera aldatzen zituen legeak. Animaliak beldurtzen hasi ziren”. Eta horrela, umore txarreko horietako egun batean, txoriei hegan egitea debekatu zion, jaio bezain pronto hegoak apurtu behar zizkieten.

Kili txikia txitatxo bat zen, amak maitasun osoz eta hegoak apurtu gabe hazia. Eta Kili txikiak egun batean Leo boteretsuari koroa kendu zion, errege kargua, eta koroa txerriari jarri buruan. Txerriak, orduan, urtean behin bakarrik garbitzeko agindua eman zuen eta Kili txikiak koroa kendu eta astoari jarri zion; honek orduan, irakurtzea, idaztea eta pentsatzea debekatu zuen eta Kili txikiak koroa kendu zion eta...

Mario Ramosek diktaduraren eta abusuaren kontrako istorio bizia eta guztiz gomendagarria eskaini digu alegia honen bidez. Modu sinplean, haurrek ere ulertzeko moduan, eta ateraldi burutsuak erabi-

liz (animalia ezberdinen bidez bakoitzak dituen burutazioekin jolastuz) umore kutsua ere izan deza-ke, berez oso gai serioa planteatzen duen liburu honek.

Egilea ezaguna da euskal irakurleentzat eta agian nabarmentzekoa da liburu honetan ez duela hainbeste erabili kolorea, ez duela jolastu paisaiekin, inguruko kontuekin. Horren ordeztu animaliak eta koroa –horia, urrezkoa, nabarmena– ikusarazten dizkigu orrietan. Hots, mezuari indar handiago emanez irudi lauagoak, sinpleagoak, eskaintzen ditu. Testua bezala irudia ere aldatzen da, baina, era berean, aurrekoaren eboluzioa da.

Askatasunaren aldeko aldarria baino gehiago, indarkeriaren eta botere gehiegikerien kontrako aldarria dugu liburua. Kili txikia txita bat besterik ez izan arren, bera dugu herrialdea askatuko duena, Leoren diktadurari amaiera emateaz gain beste diktadura berriei bidea ixten diena hasiera-hasieratik. Eta hau guztia haurrek ulertzeko eta haurrekin konpartitzeko moduan idatzia eta ilustratua. Eta horixe dugu liburu honen balio handienetarikoa bat, kontu oso serioez, gogoeta eta zeresan handia ematen duten kontuez, oso era sinplean aritzea; diktadura eta askatasuna haurrek ere ulertzeko moduan, eta era atsegin batean, kontatzea. ■

**Xabier
Etxaniz Erle**



Xolomozko burruntzia

Bartolo
taberna - jatetxea

**Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala**

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



EP

Triz3ps

(10 hazbeteko binilozko diskoa + CDa)

NoCD-Rekords, 2013

Sentimenduen iraultza

LEHENENGO lanean erakutsi zuen bidetik jarraitu, doinua zehaztu eta sendotu, eta oso lan ederra kaleratu du Triz3ps taldeak. Boro-bila, trinkoa, eta dantzagarria, erabat. Aurreko diskoarekin alderatuta, *EP* lana osoagoa da, gorabeherarik gabekoa. Beste urrats bat, urrats sendo bat, Triz3psen ibilbidean.

Javi P3z disc-jockey, musikari, konpositore eta ekitaldi antolatzaileak, eta Alberto Bosch eta Oriol Flores musikariek jotzen dute Triz3ps taldean. Lan berri honetan, Paul San Martin (teklatura) eta Luis Camino (perkusioa) aritu dira haiekin.

Argitalpen mugatuko lana da *EP*, 10 hazbeteko binilozko disko batez eta CD batez osatua. Triz3psko kideek sei kantu grabatu dituzte lan honetarako.

Diskoa ipini, eta lehen nota entzuten denetik jadanik ezin zara geldirik egon. Kantu gehienak biziak dira, energia handikoak. Funky eta soul doinu indartsuak dira –diskoari hasiera ematen dion *Eüterpe* kantua, esaterako–, lasaiagoak diren hainbat pasarte hunkigarritz tartekatua *–Bizitza maite* kantua oso polita da–.

Doinuak ederrak dira, eta musikari guztien lana bikaina izan da. Kantuak oso ondo joak, kantatuak eta jantziak daude. Halaber, Kaki Arkarazok oso ekoizpen ona egin du Garate estudioan, oso soinu ona lortu baitu, ozena, berehala mugiarazten zaituena.

Aurkezpena ere azpimarratzeko modukoa da. Dotorea. Digipack gisakoa, 10 hazbeteko binilo batez eta CD batez osatua. Lierni Aldaberea arduratu da diseinuaz. Argazkiak, berriz, Flor Azketak egin ditu.

Kantuetako mezuak ganoradunak eta zentzudunak dira. Gogoeta egitera bultzatzen zaituzte. Denboraren iragaiteaz eta geroaz hitz egiten dute, izateaz, maitasunaz, gizateriaz, gizon-emakumeen ganean. Askatasuna eskatzen du Triz3ps, baina, azken batean, sentimenduen iraultza aldarrikatzen du eta bihotzaren taupadak nabarmentzen ditu.

Bizimodu aspergarri, petral eta zikin honetan, hobia baita alaitasunez, maitasunez eta itxarope-



nez aurrera egitea, jadanik pasatu diren garai onak etengabe oroitzen, edo bikotearekin izandako sufrimenduak eta minak gogoratzen, eta malkoetan itotzen egon baino gehiago.

Javi P3zek (ahotsa eta gitarra; *En el Jardín*, 23 Ojos de Pez, Parafunk, Novophonic, Instrumental, Camping Gaz, Javi P3z Orquesta eta beste hainbat egitasmotan aritua), Alberto Boschek (baxua eta ahotsak; *Lau Behi*, Parafunk, Hotel eta beste hainbat taldetan aritua) eta Oriol Floresek (bateria; *Miqui Puig*, *Los Chets*, *Delicatessen* eta beste zenbait taldetan aritua) 2011n osatu zuten Triz3ps power soul taldea, eta lehenengo diskoa (*Triz3ps*) aipatu urtean kaleratu zuten. Triz3ps izenak indarra iradokitzen du, baina haien lagun bloglari batek esaten duen bezala, «ez da gihar baten izena, sentimenduarena baizik». Sentimenduen indarra, alegia.

Lehen disko horrek aurrera begiratzen du, garai bateko aireetan oinarrituta (besteak beste, *Curtis Mayfield*, *Al Green* eta *Temptations*), groove-funk-soul bidetik. Lehenengo diskoaren segida eta Triz3ps aurrera egindako beste urrats bat da *EP* lan berria.

Haize fresko pixka bat ekarri digu bere kantuekin, alaitasuna, emozioa, grina eta adorea, eguneroko bizimoduari irribarre batekin aurre egin ahal izateko.

Joxi Ubeda



ESKAERA ----- ELUR-KIROL	↖	ZOPARI ERANSTEN ZAION ORE ----- MINGOTS	↖	PERTSONAIA- REN ABIZENA	↖	1500 ----- EDARI ALKOHOLIKO	↖	EZEN ----- KANTITATEA ADIERAZTE- KO ATZIZKIA	↖	ANAIA ----- PERTSONALA- REN IZENA	↖	OHOLA ----- ERREGE EGUNA	↖
	↗		↗	ARDAZKA- TZEKO EKINTZA ----- 2000	↗		↗		↗		↗		↗
ELEMENTU KIMIKO ----- ERRITU	→							DEMONIO ----- IODOA	→				
	↖								↖	ATHLETIC- EKO ATEZAINA ----- SILABA HINDUA	↖		
EGUNEROKO JANGAI	MOLIBDENOA	→										MUSIKA NOTA ----- GOTORLEKU	→
		↖								NAFARROA- KO IBAIA ----- HERRI BATEN GRAFIKO	↖		POTO, TANGA
EMAKUME IZENA ----- EUSKAL FONEMA		→											↖
		↖								EZINEZKO ----- ZEIN TOKITAN	↖		
INFUSIOA ----- GERRAKO ARMA AUTO- MATIKOA		↖		NAIZEN HAU ----- ARDI HITZ- ELKARKETAN	↖	GARBAI ----- MUSIKA NOTA (ALDE- RANTZIZ)	↖	NITROGENOA ----- DAGOEN	↖	TORTURAREN AURKAKO TALDEA ----- MUSIKA ESTILO	↖		
		↗			↗		↗		↗			AZKEN LETRA ----- DEZIMETRO	↗
HOTELETA- KO IKUR ----- GAITASUNIK EZ		→				GORAZARRE ----- ANPEREA	→						↖
		↖			↖		↖			UGAZTUN MOTA	↖		

E	F	J	M	E	N	T
ES	KI	AR	DZ	K	E	T
	AD	IO		E	B	U
Z	RE	MO	IA	R	A	U
	MO			OM		FA
O	GI			E	G	
A	N			P	L	A
T	S				E	Z
		N	D	N	T	A
M	E	I	L	A	D	E
I	Z	A	R	O	M	E
F	Z	I	N	T	A	S

Bi emakume, ez gizonei buruz hizketan, uste baino zailagoa fikzioan

MEREZI du gaiak leku bat, mar-txoaren 8a pasa ondoren berdintasunaren afera hedabideen agendatik desagertuko den bel-dur bainaiz: ezagutzen duzue Bechdel Testa? *Diagonaleko* artiku-lu bati esker izan nuen haren berri. Fikziozko lanetan genero desbideratzeak neurtzeko balio duen hiru puntuko galdetegi sin-ple-sinplea da.

1) Istorioan agertzen al dira bi emakume gutxienez? (Rol esan-guratsuren bat dutenak).

2) Hitz egiten al dute emakumeek elkarrekin?

3) Solasaldian, gizon bat ez den zer-baiti buruz ari al dira?

Testa pasatzeko hiru galderen erantzunak "bai" izan behar du. Erra-za beharko luke, baina azken Osa-rretan film onenaren saria irabaz zezaketen gehienek ez zuten pasa.

Testaren sortzaileak, Alison



Bechdel komikigileak (irudian bere buruari egindako erretratua), hone-la azaldu zuen galdetegiaren sorre-ra: "Arraroa zen pentsatzea fikzioan agertu diren emakume handi horiek denak, Jane Austen arte, beste sexuaren bidez ikusiak izan zirela; ez hori bakarrik, beste sexuarenga-nako harremanean bakarrik ikusi zituzten. Eta hori emakume baten bizitzako oso zati txikia da".

Testak baditu gabeziak noski: galbahea pasatzen duten lanek ez dute zertan ez-sexista izan, analisi konple-xuagoa behar da horretarako. Eta galdetu liteke ea *Zero dark thirty* filmean bezala bi ema-kumezko Bin Ladeni buruz hitz egiten dutenean zertaz ari diren, gizonez edo politi-kaz.

Edonola, tresna baliagarria da gure imaginario kolektiboa eraikitzen duten produktu kultura-lak genero ikuspegitik aztertze-ko modu errazeen. Zineman, komikie-tan eta bideo-jokoetan aplikatzen dituzten webguneak badaude. Ani-matuko al da norbait euskal literatu-rarekin? ■

**Gorka
Bereziartua
Mitxelena**



Antton Valverde Anjel Lertxundi

Hiru eleak: Lizardi, Lauaxeta, Lete

TOLOSA - TOPIC
Martxoak 15ean - 20:30 - 10 €

Sarrerak salgai: Topic - 943 65 04 14

Laguntzaileak:

argia

antza
komunikazio grafikoa

**AAK KULTUR
PROMOTORA**
619421133



Intsektuak eta birusak orekan



FRANTZIAKO Pasteur Institutuko eta CNRSko ikerlari talde batek artikulu bat plazaratu du *Nature Immunology* aldizkarian, birusek sortutako infekzioen aurrean intsektuek dituzten defentsez.

Gauza jakina da birus askok intsektuen bitartez bidaiatzen dutela, baina intsektu garraiolari gutxi hiltzen dira birus horien eraginez. Zergatik?

Ikerlarien arabera, birusak intsektua infektatzean, haren zelulek ADN sekuentzia bere-

ziak sortzen dituzte, ez birusaren aurka joateko, beraren ugalketa moteltzeko baizik; hala, intsektuek eta birusek sinbiosian bizitzea lortzen dute denbora luzean. Nolabait esateko, birusak ohartzen dira intsektuena ez dela infektatu beharreko gorputza, eta onartzen dute intsektuaren zelulek proposatzen dioten sinbiosia.

Mekanismo hori ongi ezagutuz, oso posible litzateke giza-kien infekzioen alorrean erabilpen onuragarriak lortzea. ■



Telefono eramangarriak, bakterio eta mikrobioen gordeleku

Telefono eramangarriak patrikan, eskuetan, poltsan, mahai gainean, sukaldean, komunean... erabiltzen ditugunez, leku guztietako bakterio zein mikrobioen gordeleku bilakatu dira eta ondorioz gure osasunean betebetan eragiten dute.

ttiki.com/48147
(Frantsesez)

Martxoan ere Garoñako zentral nuklearra izango dugu hizpide

Garoñako zentral nuklearra gel-dirik dago, eta ofizialki uztaillean itxi behar omen da. Baina zurrumurruak diote Espainiako Gobernua bereak eta bi egiten ari dela Nuclenorrek zentrala ustiatzen jarraitzeko. Zurrumurru serioa da, arrazoi sinple honengatik: askoz merkeagoa da jarraitzea, ixtea baino

Terminator filmean ikusitakoa ez da zientzia fikzioa



TERMINATOR 2 filmean agertzen zen robot baten ezaugarri harrigarrienetakoa zen milaka zatitan puskatu arren zatiek berriro elkar-tu eta robota osatzen zutela.

Pittsburgheko Unibertsitateko (AEB) ikerlariak material auto-osagarrien bila ari dira aspalditik. Material horren konposizio kimiko zehatza ez baino arrasto

batzuk eman dizkigute; tratamendu kimiko zehatza jasan duen gelatina berezi batekin probak egin dituzte eta, antza, gelatinazko atal bat zatitu ondoren, argiaren eraginez atalen arteko komunikazio kimikoa sortzen da. Behar bezain hurbil baldin badaude, zatiek hasierako egoerara itzultzeko joera erakusten dute. Komunikazio kimikoa naturako gertakaria da, eta batez ere ameben eta termiten artekoa da ikerlari-gehien interesatzen zaiena.

Orain arteko saioak ordenagailuan egin dituzte, baina laster benetako proba fisikoa egingo dute. ■



Gripea kutsatzea zailagoa da hezetasan handia badago

Otsailaren amaierako egunak hotzak izan dira Euskal Herrian. Gure etxeetako eta bulegoetako berogailuak piztuta izan ditugu, eta horien eraginez arnastu dugun airearen hezetasuna, gehienetan, oso txikia izan da. Egoera hori oso aproposa omen da gripearen birusarentzat; hezetasun handia egoteak, aldiz, gripez kutsatzeko arriskua txikiagotzen du.

ttiki.com/48148
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Amaginarreba

BERE KATUA baino seño-ragoa den lagun batek, etxeko seño-rakua katua pozoitu dezaketen landareez idatzitakoa irakurri ostean, izutu antzera idatzi dit. Seño-ragoak alaba bat badu lagunaren atzetik Galiziara joana. Eta handik etorri omen zaion berria luzatu dit: “Dieffenbachia landarea pozoitsu-a omen da. Zuk zer diozu? Oso

landare arrunta da eta beraiek bizi osoan izan omen dute etxean”.

Ameriketako *Dieffenbachia* generoko landareak ohikoak dira, bai, etxe barruetan, arruntena *Dieffenbachia bowmanii*. Etxean lana latz egiten du dieffenbachiak, etxeko zokoetako itzaletan ondoen bizitzen diren landareetakoa izateaz gain airea garbitzeko gaitasun aparta du. Denok bezala, ordea, horrek ere badu atzeko leihoa.

Landare osoak du pozoia. Kaltzio oxalatozko kristalak ditu. Belarjaleen hortzak bere hostoetatik urruntzeko eraginkorrak. Landare honen zatiren bat murtxikatuz gero ahoan eta eztarrian handituak, hanturak edo eritemak sortuko ditu, hizketarako aukerarik gabe uzteraino, baita egun batzuez ere. Ahokoa sentituta zaila bada ere, gehiago janez gero barruragoko kaltea bueltarik gabea gerta daiteke, glotisa handituz arnasa zeharo galarazi baitezake, ito arte.

Ingelesek *Dumb cane* deitzen diote, eta itzulpena bikoitza izan daiteke: tentel edo baboaren kana-

bera, ala mutuaren edo mintzoga-bearen kanabera. Mutuarena argi dago, hitza galarazten du. Tentelarena, jaten duena nolakoa den azaltzen duelako, agian? Erdialdeko Amerikan *Lotería* deitzen diote; zori ederra! Frantsesez *Canne des muets* diote, mutuen kanabera ala puta etxe finetako kanabera? Pozoiarekin katoliko zuriren batek egingo zuen lotura ote? Portugesez *Comigo ninguém pode* deitzen diote Brasilen. Ez da miraria, garai zaharragoetan esklaboak zigortzeko landare honen hosto zatiak ahoan sartzen zizkieten. Geroztik, energia kaltegarri eta begizkoari aurre egiten dien landareztat dute eta zorionerako zazpi landareen artean landatu eta gurtu.

Landareak marraskatzeko ohi-tura duten haur txikiak eta maskotak urrundu, baita hura ukitu besterik egin ez duen ureztaketa uretik ere.

Ingelesek *Mother in law* ere deitzen diote, amaginarreba, alegia. ■



LUCA LUCA-CC BY SA



Dieffenbachia bowmanii.



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! Bost aranondo ditugu, hamabi urtekoak; handiak daude, baina ez dute fruiturik ematen. Urte bakan batzuetan eman dute dozena bat ale edo, baina ez gehiago. Inguruan baditugu beste fruitu-arbola batzuk: txermenak, sagarrondoak, intxaurrondoak... Horiek, normalean, ondo ematen dute fruitua. Baina aranak ez. Zergatik ote?

Rafael Larrañaga (Azpeitia)

Kaixo Rafael. Argazkia ikusita eta esaten duzunarekin, hona neure teoria: lehia handia dago arboladi horretan. Argazki batzuetan ere ikusten da itzaletan daudela, inguruko zuhaitzek eragindako itzala.

Bestetik, ikaragarritzko konpententzia izango dute lurreko jakiak hartzeko. Hau da, borroka latza, eta fruitua emateko kemen gutxi eta gero eta gutxiago...

Nola mozten duzu azpian duten belardia? Motose-garekin? Argazkiengatik hala iruditzen zait. Moto-segak kalte handiak egiten dizkie zuhaitzei. Makina hori erabiltzen baduzu ez inguratu enborrera, enborrean ematen duen kolpe bakoitzeko izerdia gero eta urriago igoko da.



RAFAEL LARRAÑAGA

Ondorio nagusia: ongarritu eta ongarritu. Simaurra eman gupidarik gabe. Fruitu-arbolaren bat kentzea ere ongi legoke, besteei eguzki eta lurreko elikagai gehiago uzteko. Eta kontuz belarra moztetakoan... Ongi izan. ■

Jacuzziren semeak burbuilazko bainuak behar ditu



JACUZZI AIR BATHS

Ezkerretik eskuinera: zazpi Jacuzzi anaiak (Francesco, Rachel, Valeriano, Galindo, Candido, Giocondo eta Giuseppe); bainurako ponpa, 1955ean merkaturatua; eta Jacuzzi enpresaren saltoki zaharrenetakoa, urte batzuk geroago.

PORDENONE (FRIULI, ITALIA), 1900. Jacuzzi familiak jaioteritik alde egitea erabaki zuen, itsasoaz bestaldera bizibide hobea lortu asmoz. AEBetan zazpi anaiek, beren bizimodua hobetzeaz gain, beste askorena ere hobetzea lortuko zuten mende erdi geroago.

Kaliforniako Berkeleyn ezarri ziren eta anaia zaharrenak makinak maniatzen hasi ziren lanean. Esperientzia hark lagunduta eta San Francisco inguruan egin zuten hegazkin ikuskizun batek inspiratuta, 1915ean Rachel Jacuzzi hegazkinentzako propulsio-helizeak egiten hasi zen. Urte berean Jacuzzi Brothers enpresa sortu zuen anaiekin batera, eta Jacuzzi Toothpick (Jacuzzi txotxa) izeneko helize arrakastatsua merkaturatu zuen. Berehala kabina itxiko lehen hegazkin planobakarra asmatu zuten, eta ale asko ekoiztu behar izan zituzten, AEBetako posta zerbitzuak San Franciscoko badiatik Yosemiteira pertsonak eramateko hegazkin hura aukeratu baitzuen.

Baina 1921ean Giocondo anaia konpainiaren plano-bakarrean izandako istripu batean hil zen eta, ezbeharra gogoan, enpresak hegazkinak egiteari utzi zion. Hegazkinetako ponpa hidraulikoak egiten pilatutako esperientzia nekazaritzarako ponpak ekoizteko erabili zuten orduan. Jacuzzi ponpa berritzaileak Kaliforniako Esta-

tu Azokako urrezko domina lortu zuen 1931n, negozio lerro berriaren arrakastaren seinale.

1943an, 15 hilabete zituela, Kenneth Jacuzziri erreuma-artritisa eta, beraz, min kronikoa diagnostikatu zioten. Candido Jacuzziren semea hidroterapia saioak hartzen hasi zen inguruko ospitale batean, baina saioek ez zuten oinazea luzaroan arintzen, eta haurra sufritzen ezin ikusita, nekazaritzarako ponpa hidraulikoa etxeko bainuontzian probatzea erabaki zuen aitak. Kenneth osasunak nabarmen egin zuen hobera, eta handik urte batzuetara gaixotasun kronikoak ez zion eragotzi enpresaren gidaritza bere eskuetan hartzea.

Doikuntza batzuk erantsita, Jacuzzik 1955ean merkaturatu zuen ponpa, eta 1968an turrustak integratuta zituen bainuontzia ekoizten hasi zen. Hasieran erabilera terapeutikoarekin lotu arren, Hollywoodeko izarrek luxu bihurtu zuten, eta 1970eko hamarkadan, spa industria modernoarekin batera, ekoizpenak eztanda egin zuen. Jacuzzitarrak 1976 arte izan ziren enpresaren jabe; hidromasaje bainuontziak ez ziren sekula konpainiaren ekoizpen lerro nagusia izan, baina haien abizena beti egongo da turrusta-bainuen plazerari lotuta. ■



Arrastoak

AEBetako sufragistek kalea hartu zuten duela 100 urte

KENNETH E. BEHRING C.



1913KO MARTXOAREN 3AN 5.000 emakume baino gehiagok manifestazioa egin zuten Washingtonen, Woodrow Wilson presidentearen karguhartzearen bezperan, boto eskubidea eskatzeko. Istiluak izan ziren polizia-aren erantzun gogorra medio, eta hil horren 17an, barrutiko polizia supe-

rintendentea kargutik kentzea lortu zuten sufragistek; boto eskubiderik ez, ordea. Baina ondorengo asteetan sufragismoak inoiz ez bezalako protagonismoa izan zuen komunikabideetan. Boto eskubidea lortzeko bidea luzea izango zen, baina manifestazioa inflexio puntua izan zen. ■



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzearra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



OSCAR RODRÍGUEZ VAZ

«Alderdi sozialistaren arazo latzena sinesgarritasun eza da»

Gasteiz, 1977. Arabako PSE-EEko kidea da. Hiru legealditan legebiltzarkide izana Gasteizko Parlamentuan. PSEko zuzendaritzatik at dago egun. Ez du onartzen alderdi barruko ildo bateko partaidea denik. Haatik, ezin uka dezake ildo ofizialaren oposizioan dagoela. Alderdi sozialista berritzeko agertu digun grina lekuko. Zientzia politikoak ikasi zituen Leioan. Doktoretza prestatzen ari da alderdien eta demokraziaren ereduaren krisiaz.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco



ALDERDI SOZIALISTAKO barne egoera, Arabakoa bereziki, eta LTH delakoa (Lurralde Historikoen Legea) izan ditugu hizpide Oscar Rodríguezekin. Hona, LTHri buruzko aurrerapena: “Administrazioaren erreforma egin baino lehen, alderdiek administrazioaren funtsezko lanak zein diren adostu beharko lukete. Hau da, herriaren osasun eta hezkuntza publikoa, fiskaltasun berria edota gizarte solidarioagoa bermatu nahi baditugu, hori guztia zehaztu behar dugu denon artean. Hiru lurralde ezberdinak gara, ados, baina batzuetan

EAEk lurralde bakarra dela ematen badu, elkarrekin lan egin beharko genuke gehiago. Adibidez, iruzur fiskalari amaiera emateko hiru diputazioek eta Jaurlaritzak eskuz esku lan egin beharko lukete. Iruzurra 2.500 milioi eurotan estimatuta

dago. Iruzur fiskalarekin amaituz gero, hezkuntza guztia ordaindu genezake urtero-urtero. Baina horretarako politika bateratuak egin behar ditugu. Administrazioan aldatetako egiteko herri eredu hori eduki behar dugu lehenik buruan”.

PSEko sektore kritikokoa zara. Duela urtebete aldaketarako prozesua hasi zenuten Araban. Zertan bukatu da?

Lehenik eta behin argitu nahi dut, ez nagoela sektore kritiko batean, ez naizela ere ezeren birsortzaile. Alderdi sozialistan nago, nire alderdian, PSEko partaidea naiz.

PSEn ez dago sektorerik, ez kritikorik?

Zehaztu aldera: politikariok kritikoak izan behar dugu, areago une honetan, eta batez ere alderdi ezker-tiar batean, baina ez naiz korrante batekoa. Alderdi sozialistaren handitasuna bere aniztasuna da. Esaterako, Fernando Buesa kristau-demokrata zen eta alderdira etorri zen politika sozialista egitera. Gauza bera ere Txarli Prieto [Arabako idazkari nagusia], alderdi komunistatik etorri zena. Baina gurean ez da egiten politika demokrata-kristaurik ez komunistarik. Gurea alderdi sozialista edo sozial-demokrata da, eta arazoak izaten ditugu norbait beste politika mota bat egitera datorrenean.

Alderdia berritzea da zure nahia, edonola ere.

Gure handitasuna gure aniztasuna dela esan dut, eta eraberritzeko prozesua ez da bukatu. Txarli Prietok duela lau urteko Kongresuan botoen %89 lortu zuen, orain %57. Orduan, ezberdintasuna begi-bistakoa da, aldaketa hasi baino ez da egin.

Txarli Prieto berraukeratua izan da Arabako kongresuan. Bizkaian J. A. Pastor eta Gipuzkoan Iñaki Arriola. Politika aldatzeko politikariak aldatu beharra aipatzen da egun, ordea.

Europar, Estatuan nahiz hemen, alderdi sozialistak duen arazo latzena sinesgarritasun eza da. Eta berau berreskuratzeko aldaketak ezinbestekoak dira. Horretarako, lehenik, mekanismoak aldatu behar dira alderdian. Bigarrenik, gardentasun erradikala eta eztabaida demokratikoa gehiago praktikatu behar da, baina alderdiaren mekanismoak aldatzeaz gain pertsonak ere aldatu behar dira. Eta hirugarrenik, gure ideiak berpizteko prozesu hori zabaltzeko behar dugu gizartera, bera- rekin batera aritzeko.

“Politikariok hirugarren arazoa gara herritarrentzat. Beraz, politika aldatzen dugu edo aldatuko gaituzte”

Izan ere, alderdi politikoak gizartea- gandik gero eta urrunago ei daude.

Bai. Dena aldatu da azken hamarkadan: harreman sozialak, hedabi- deak, zientzia, teknologia. Dena aldatu da politika izan ezik. Estruk- turak ez dira berritu azken hamar- kadetan, eta hori arazo latza da demokraziarentzat. Politikariok hirugarren arazoa gara herritarren- tzat, krisialdiaren eta langabeziaren ondoren. Beraz, politika aldatzen dugu edo aldatuko gaituzte. Etorki- zuna aztertu eta aldaketa asko egin behar dugu alderdietan, demokra- zian aldaketak izan daitezen. Haste- ko, norberak bere etxetik hasi behar du aldaketa bultzatzen. Nik neuk alderdi sozialista berritzea dut lehen helburua, eta gero demokrazia sis- tema, baina lehenik nire etxea.

“Alderdiaren handitasuna, aniztasuna praktikatu dugunean izan da. Bai Gasteizen bai Araban indartsuak izan gara, baina hori onartu ez dugunean galdu dugu”

Arabako PSEk indarra galdu du. Hala ere, Euskadiko PSEk Txarli Prietoren alde egin du azken kongresuan.

Suhiltzaileek ez diote mangera elka- rri zapaltzen, eta nik ere ez dut hala- korik egin nahi. Hori alderdi guztie- tan gertatzen da. Alderdietan nagusiek elkar sostengatzen dute. Alderdien eta demokraziaren ara- zoa da. Egia da, gurean aldaketa ni Legebiltzarretik kentzea izan da eta Prieto sartzea [ironiaz].

Traba egiten diozu Prietori, nolabait.

Nik ez dut nire jarrera eremu per- tsonalera eraman nahi, nire kritikak politikoak dira, eta, nire ustez, sako- nak. Araban ere gardentasun gehia- go behar dugu, horrek ez du esan nahi gardentasunik ez dagoenik, gehiago behar dugula baizik. Deba- te demokratikoan gehiago sakondu behar dugu, mekanismo berriak gizartearekin batera landuz politika egiteko. Horiek kritika politikoak dira, ez pertsonalak.

Hala ere, ez zara Arabako zuzendari- tzako kide honezkero.

Ez nago exekutiban, ez. Baina alder- diaren handitasuna, aniztasuna praktikatu dugunean izan da. Bai Gasteizen bai Araban indartsuak izan gara, eta hori onartu ez dugu- nean galdu dugu. Jaurlaritzan sartu ginenean, krisialdi ekonomikoa era- batekoa zen, ezkerren krisi ideolo- gikoa ere bizi dugu. Baina batez ere, ezin dugu aniztasuna galdu, ezin du inork etorri alderdira bere politika inposatzera. Areago, azken bi urte hauetan politika arriskutsua mar- txan jarri da: edo nirekin zaude edo nire aurka. Eta nik hori ez dut parte- katzen, hori ez da nire alderdia.

PSEko kongresuen ondoren, zer?

Berpizteko prozesua hasi berria da, eta jarraitu behar dugu. Gure ideiak ez dira egun batetik bestera desa- gertuko. Jende asko dago gurekin, eta ez bakarrik alderdian, kalean ere bai. Jendea ezkerreara begira dago: fiskaltasun berria, sozialismo ber- dea eta gizarte solidarioago bat lor- tzeko borrokan ari da. Gizarteak horiek eskatzen dizkie alderdiei, eta guk, unean uneko egoeraren arabe- ra, horiek seriotasunez eta zintzo- tasunez lantzea eskatzen dugu alderdian.

Eusko Legebiltzarreko jarduna hizpi- de. Nola baloratzen duzu Patxi Lopez lehendakari ohiaren aroa?

Orokorrean, herriak ikusi behar zuen posible zela gobernatzea EAJ gobernutik at egonda. Herri hau ez da erori, euskara ez da desagertu, ezta Urumea lehortu ere EAJk ez duelako gobernatu. Guk halako zor bat genuen herriarekin eta gure buruarekin. Erakutsi dugu herria



"Gasteizko auzo honetan, PP, EAJ, ezker abertzalea, alderdi sozialista eta alderdirik ez dutenak bizi gara. Hoditeria bera dugu, eta guztiok ura bertatik hartzen dugu, baina oraindik ez dakigu elkarrekin bizitzen".

governatu dezakegula, hainbat gauza ondo eginez gainera. Hiru erronka izan genituen gobernu hartzean: krisialdiari aurre egitea, gizarte krispazioari, eta terrorismoari ere. Uneon, aurrekontuen onarpen garaian gaudela, gogoratu nahi dut gure aurrekontuak sekulako babesarekin onartu zirela lau urteetan. Krispazioa izugarria zen eta asko jatsi zen PSEri esker. Badakit ez zela alderdiari eta lehen-dakaritzari esker soilik izan, baina lan handia egin zuten bukatzeko. Egun ez dago gizartean zegoen tentsioa. Terrorismoari dagokionez, ez dezagun ahaztu PSEk Jaur-larritza hartzean ETArek mehatxua jaso zuela, eta legegintzaldiaren amaieran ETA ez zegoela jada. Ez zuen Patxi Lopezen gobernuak bakarrik lortu, baina gobernuan zegoena PSE zen. Historiarako geratzen diren gauzak dira, onak, badira ere txarrak noski.

Hala nola...

Hainbat gauzatan, gutxi baina sinbolikoak eta garrantzitsuak, ez genuen jakin ausardiaz jokatzeko. Adibidez, LTH delakoaren erreforma Legebiltzarrean planteatzea. Lehendakariak zioenez, hiru lurralde gara baina herri bakarra. Hitz

egin genuen, herrian beharra zegoela esan ere. Hala ere, lurralde bakarra baina hiru gobernu daude batez ere. Eta errealtate hori aldatzeko lege hori aldatu behar dugu. Ausardia falta izan zuen gure alderdiak.

Nola ikusten duzu Eusko Legebiltzarreko politika, hiru legealditan barruan egon ondoren?

Egoera polita da akordioetara iristeko. Lehenbiziko Legebiltzarra da bake garaian. Euskadi bake garaian dago eta espero dezagun betirako egotea. Horrek alternatiba edo aukera gehiago ematen du akordioetara ailegatzeko. Ez da berdin lehengo egoeran akordioetara iristea edo orain. Gainera, Jaur-laritzak ez dauka gehiengo osoa, horrek joko asko ematen du. Legebiltzarren egoera interesgarria da, eta pena eman dit bertan ez egoteak egoera honetara iristeko lan egin baitut aurreko hiru legealdietan. Beno, lagunek eta kideek egingo dute.

Norekin eta nola jokatu behar du PSEk bereziki? Ezker abertzalearekin, akaso?

Geuk geure arazoak eduki badauzkagu alderdian, beraz, nire ardura ez da ezker abertzalea, nire alderdia

baizik. Dena den, ezker abertzaleak bere bidea egin behar du, oraindik pauso asko eman behar du. Azken hamarkadetan sufrimendu asko egon dela aitortu behar du, eta hori aitortzeaz gain, baten batek esan behar du, "ni han nengoen eta ez nuen ezer esan". Ari da urratsak ematen hala ere. Legebiltzarrean EH Bildu egoteak poztzen nau, baina ez dut nahi gertatua ahaztea, alegia, ez dezagun hitz egin soilik beharrezkoa delako, elkarriketak ona izan behar duelako baizik. Horretarako, mahai baten inguruan jarri behar dugu. Larriena egin dugu, terrorismoarekin amaitzea, baina agian zailena geratzen zaigu, bizikidetzatza lortzea. Hemen, Gasteizko auzo honetan, PP, EAJ, ezker abertzalea, alderdi sozialista eta alderdirik ez dutenak bizi gara. Hoditeria bera dugu, eta guztiok ura bertatik hartzen dugu, baina oraindik ez dakigu elkarrekin bizitzen. Eraikinean biziko bagara, elkarbizitza lortu behar dugu.

Urkullu lehendakaria izaki, Lopezek oposizioan hartu duen tokiaz iritzirik?

Bere tokia hartzen ari da. PSE hiru-garren alderdia da, oposizioan gaude, egin behar ez duguna da gobernatu. EAJ gobernuan dago, ez gara ere oposizioko lehen alderdia. Guk geure prozesua landu behar dugu eta lekua hartu. Alderdia eta ideiak berpiztu behar ditugu. Ezkerreko ikuspuntutik lan egitea nahi dut, datozen hilabetetan LTH eta fiskaltasuna aldatzeko eta elkarbizitza lortzeko. Hori espero dut nire alderdiarengandik.

EAJk eta PSEk aurrekontuetan akordia lortuko al dute?

Niri ez litzaidake gustatuko EAJrekin akordioak egiten hasia. Akordio txikiak egunero egin behar dira noski, arazo konkretuak eta behinenak aurrera ateratzeko, baina beste gauza bat da politika estrukturalak aurrera ateratzeko akordio handia egitea, etorkizunari begira aritzea. Nire ustez PSE ez dago prest hori egiteko. Lekua hartu behar du kalean eta ezkerrean. Eta une honetan leku hori ez du hartuta. ■



dokuSAREA

Hilero dokumental bat proiektatuko da Euskal Herriko taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegietan, guztiak euskaraz edo euskarazko azpidatziekin.

**Anima zaitetz
zure herrian
antolatzerara!**

HILABETE HONETAN



ATZERAPAUZO HANDIA

Neoliberalismo hogeita hamar urte pasa ondoren zer dugu frantziar eredu sozialaz?

Eraikin errepublikanoen aitzinaldean idatzitako "Askatasuna, Berdintasuna, Elkartasuna" hitzek esanahirik ba al dute orain?

Merkatuen pribatizazio grinak bai eta haren indar suntsitzaileak ase ezinak dira. Soziologo, kazetari, aktibista, paperik gabeko, ijito eta errefuxiatu politikoek publikotasuna asaldatzeko era hau deskribatzen dute.

> Johanna Lévy, Yann Manuguerra, Philippe Fréchou, Tristan Goasguen

> 70min

> 2011

HARREMANETARAKO



EGUZKI BIDEOAK
948 211 537 / 608 928 631
dokusarea@eguzkibideoak.info
www.eguzkibideoak.info

Bi suteren artean harrapatuta

Siriako Alepo hiria odolusten ari den bitartean, Babeserako Unitate Kurduak saiatzen ari dira erregimenaren eta matxinatuen arteko borrokaldiak Ashrafiyeh eta Shekih Masqsoud auzoetara ez daitezen iritsi; kurduak dira han gehiengo. Kurduen milizietara Siriako Ejertzito Librearekin ernegaturik dauden arabiar gazteak iristen ari dira.

Testua eta argazkia:

| DAVID MESEGUER |



“Ikaslea naiz eta sekula ez nuen armarik hartu eskuan, baina orain herriak behar gaitu” dio Cihan-ek, kalashnikova sorbaldan daraman 20 urteko emakumeak.

BABESERAKO UNITATE KURDU-etako (YPG) bi miliziar guardia egiten ari dira Awared meskitaren parean, Alepo osoa ikus daitekeen muinoan. Zerumugan milaka urteko zitadela ageri da, eta bertotik ke trinkoa dator, Bashar al-Assad-i leialak diren tropen eta Siriako Ejertzito Librearen arteko borrokaldien ondorioa. Egunez, hamarnaka lagun etortzen dira Sheikh Maq-

soud-eko anfiteatro natural honetara, gerra zuzenean ikusteko.

Joan den uztailetik Batasun Demokratikorako Alderdiak (PYD) –PKKren adar politikoa Sirian– herrialdearen iparraldeko hainbat gunek kontrolatu eta administratzen ditu, Siriako 2,5 milioi kurduen zati handi bat bizi da bertan. Alepoko Ashrafiyeh eta Sheikh Maqsoud ere bere esku daude.

Bizitza, bi suteren artean

Neguairen gogorak eta elikagai eskasiak Alepoko milaka herritar bultzatu ditu egunero gerra fronteak gurutzatzera; bizia arriskuan jartzen dute hiriaren zati honetan lehengaiak eta gasolina lortzearen. Sheikh Maqsouden eta Ashrafiyehn denda gehienak irekita daude eta oinarritzko produktuak aurki daitezke bertan, izan ogia edo egurra,

herrialde osoan bezala prezioek gorakada itzela izan duten arren.

Alepoko infernuaren erdian halako oasia egoteak, eragin du hiriko beste auzoetatik egotzitako milaka lagun bertara joatea. Marian eta bere familiaren kasua hori da, orain Yasser-eko eskolan daude: “Ez dugu kalefakziorik eta negua gogorra izaten ari da”, dio zahartzarora hurbiltzen ari den emakumeak. Ikasmahaien orde, arropak, mantak eta kozinako tresnak ageri dira ikasgelan.

Hiriaren zati honetan borrokaldirik ez zen izan iazko urrira arte. Orduan, Babeserako Unitate Kurduak eta Siriako Ejertzito Librearen Saladino brigada gogor aritu ziren, matxinatuek Ashrafiyeh-en sartu nahi baitzuten. Borroketan 20 hildako izan ziren eta alde bakoitzak 200 preso inguru egin zituen; ez erasotzeko ituna sinatu ondoren presoak trukatu zituzten. “Ankarak ezin du jasan kurduak autonomia izaterik, ezta eskubiderik ere, eta horregatik kutsu islamiarra duten talde matxi-noak babesten ari da”, dio Hassane, PYDko liderra Alepon.

Hainbat hilabete lasai igaro ondoren, tentsioa berriz itzuli da gune horretara, baina oraingoan miliziar kurduak Gobernuaren tropen kontra ari dira, hauek ere Ashrafiyeh-en sartu nahian baitabilza. Kurduak defentsarako postuak jarri dituzte eta garraibide nagusietan *checkpoint* ugari ere bai.

Emakume miliziarak

YPGren barruan nagusi da PKKren ideologia eta Abdullah Öcalan-i sekulako miresmena zaio, miliziar

gehienak kurduak baitira. Baina maiz, beste erlijio eta jatorritako jendea ere aurki daiteke. Qamishlo hirian adibidez, borrokalari kristau ugari dago, eta Alepon arabiar gazte askok eman dute izena milizia kurduetan, Siriako Ejertzito Librearen jarrerarekin desengainatuta.

“Familia eta lagunak ez dira nitaz harro, nire burua saldu dudala uste dute” dio Mohammed-ek, milizia kurduetan izena eman duen gazte arabiarak

“Familia eta lagunak ez dira nitaz harro. Traidore naizela uste dute, nire burua saldu dudala”, azaldu du Mohammed-ek YPGk Ashrafiyehen duen kuartel orokorrean. “Siriako Ejertzito Librea hasierako helburu nagusitik aldendu da: errejimenari aurre egitea. Zenbaitek, herritarrek lapurtu eta mehatxatzen dituzte. Euren borroka desitxuratu egin da”. Mohammedek matxinatuen taldea utzi zuen eta YPGra batu zen.

Antzeko kasua da Ahmed-ena, Saladino auzoko 20 urteko gaztea. Orain gutxi arte Al-Assad-en errejimenaren kontra ari zen: “Uztailen matxinada gure etxeko atarira iritsi zenean Ejertzito Librea batzea erabaki nuen. Lehen lerroan aukera gehiago izateko, familia ugari etxetik bota genituen eta horietako batzuk hil ere bai. Oso gogorra izan zen, batzuk umetatik ezagutzen nituen auzokoak ziren”. Miliziarra aurpegia *kufiyya* batek estalia duela

ari da kontatzen bere historia.

“Duela hilabete Ejertzito Librea uztea erabaki nuen eta Ashrafiyeh ezkutatu nintzen. YPGko hainbat kide ezagutu ondoren euren unitateetan sartzea pentsatu nuen. Onartua sentitzen naiz, ez dute etniaren araberrako banaketarik egiten, tratua berdina da”, dio borrokalariak.

Ehunka emakume bat egin dute euren borondatez milizia kurduekin. “Ikaslea naiz eta sekula ez nuen armarik hartu eskuan, baina orain herriak behar gaitu”, dio Cihan-ek, kalashnikova sorbaldan darabian 20 urteko gazteak.

“Errejimenaren kontra berriki izan diren borrokaldiek eta oposizio-ko islamisten kontra lehenago izandakoek ekarri dute emakume ugari gurean izena ematea”. Alepoko PYDko buruzagietako bat da Zelal eta bere hitzek aldarrikapen kutsua dute: “Mendebaldeko Kurdistanen bi milioi kurdu besterik ez gara, eta egoeraren larritasuna ikusirik, oinarritzkoa da gu ere, emakumeok, babeserako unitateetan aritzea”.

Zelalen ustez “gizonek beti izan dute boterea eta hegemonia. Gerra ere bai. Emakumeek gerran parte hartzea berdintasun espresio gorena da”. Emakumeek bizitza politiko eta militar kurduan duten rol aktibo hori PKKren ideologia feministaren herentzia da. Ideologikoki gerilla horrekin bat egiten duten talde politikoak zein armatuak paritatearen alde egiten saiatzen dira, eta goi-karguetan emakumeak ere badituzte. ■





irudimena

.com

Sormen lehiaketa | 3. edizioa



1 Soinu bat aukeratu
irudimena.com web orrian



2 Soinu bat, testu bat edo irudi bat sortu



3 Bidali!
irudimena.com gunetik

Sari frango irabazteko | Martxoaren 1etik maiatzaren 15era






Aukeratu: euskara edo ospea

Ura urre nola bihurtu asmatzekotan, ez argitaratu emaitzak hizkuntza gutxitu batean. Horra EHUren arazoetako bat: ikerkuntzan euskara sustatzeko neurri orok topo egiten du aspaldi eraikitako hesiekin. Oraingoz ezin gaindituzko hesiak dira, beren lanaren berri euskaraz eman nahi duten ikertzaileek ondo dakitenez.

| UNAI BREA |

EHUKO ZIENTZIA FAKULTATEAN elkartu gara izena ezkutuan gorde nahi duen irakaslearekin. Bere bulegoan hartu gaituenean paper bat du eskuan; Unibasq-ek bidali dio, hau da, Eusko Jaurlaritzak EAEko unibertsitate sistemaren kalitatea ebaluatzeko sortutako agentziak.

Aipatutako dokumentuaren bitartez, Unibasqek esplikatu egiten dio irakasleari zergatik ez duen lortu puntu nahikoa Irakasle Oso bihurtzeko, eta ondorioz unibertsitatean estatus hobea lortzeko: “Eskatzailearen argudiatzeak aztertu ostean, batzorde honek berresten du aurrez emandako puntuazioa. Argitalpen zientifikoetan plazaratutako lanei dagokien puntu kopurua asko aldentzen da Irakasle Oso batek behar lukeenetik. Maila hori eskuratu ahal izateko, hautagaiak handitu egin beharko du itzal handiko aldizkarietan egindako ekoizpen zientifikoa”.

Ez dugu asmorik, ezta gaitasunik ere, gure solaskidearen produkzio zientifikoa noraino den bikaina epaitzeko. Berarengana etorri izanaren arrazoia beste bat da: hizkuntza aldetik dagoen desoreka batez ohartarazi nahi gaitu. Unibasqek aztertutako epean, dozena eta erdi inguru ikerlan argitaratu ditu euskaraz, eta denen baturagatik zero puntu eskuratu ditu. Gaztelaniaz eta ingelesez argitaratu duen bakoitzarengatik baino gutxiago. Hori bai, Euskararen Ezagutza alorrean puntu kopuru maximoa eman dio Unibasq-ek gure irakasle anonimoari.



Ingelesa da nagusi nazioarteko inpaktuzko aldizkarietan. Euskarak, aldiz, zaila du prestigidun argitalpenen zerrendetan muturra sartzea.

“Baina nik ez ditut lan horiek idatzi euskara menperatzen dudala frogatzeko; zientzia-ikerlanak dira”.

Oihartzun defizita

Ikerkuntzan, egindako lanaren kalitateak baino garrantzi handiagoa izan ohi du haren oihartzunak, eta euskaraz lor daitekeen oihartzuna hutsaren hurrengoa da. Edo hutsa besterik gabe, Unibasqen irizpideak aintzat hartzera. Hori jakin badaki urtariletik EHUKo Euskara errektoreorde den Xabier Etxaniz Erlek. “Artikulu baten inpaktua neurtzeko irizpide bat da zenbat aldiz izan den aipatua, eta euskaraz idazten badu- zu ia inork ez zaitu aipatuko. Ingele-

sez idatzita, aldiz, askotan aipatuko zaituzte”.

Ez du ingelesa alferrik aipatu Etxanizek, nazioartean ikerkuntzaren *lingua franca* baita. Esamoldea ez dugu geuk asmatu, EHUKo berak idatzitako dokumentu batetik ateratu dugu: 2007tik 2012ra arteko Euskararen Plan Gidaria. Hona zer dioen Planak *lingua franca*-rena aipatzen duen paragrafo berean: “Erabat estandarizatuta ez dagoen euskara bezalako hizkuntza baten kasuan, euskaraz lan egin eta argitaratzen duten ikertzaileen ekarpenak ezinbestekoak dira”.

Euskaraz egindako ikerketa bultzatu beharra azpimarratzen du,

hortaz, Plan Gidariak, eta horretarako hainbat neurri proposatzen du. Abian dira guztiak, baina ezin esan bost urteotan euskararen egoera biziki hobetu denik ikerkuntzaren alorrean.

Ingelesaren eskutik ospe bila?

Plan Gidariaren epea agortuta dagoenez gero, ikusi beharko da datozen urteetarako zer nolako egitasmoa garatzen duen errektore-talde berriak. Momentuz, eta ikerkuntzan euskara sustatzeari dagokionez, honakoa aurreratu digu Xabier Etxanizek: “EHUk euskara hutsezko hiru aldizkari zientifiko argitaratzen ditu: *Ekaia*, *Gogoa* eta *Tantak*, oihartzun eskasa dutenak. Gure asmoa da paperean orain arte bezala jarraitzea baina edizio digitalak elebidunak izatea, euskaraz eta ingelesez. Horrela, gure bi helburuak bete ahal dira: ikerketa egitea bata, euskarazko corpus zientifikoa osatuz joatea bestea. Euskaraz doktorego-tesi bat egitea oso garrantzitsua da euskararen garapenerako, baina beste alde-tik ikusi behar da zer ekarpen egiten zaion zientziari. Logikoena da horren berri ematea kanpoan. Eta zer hizkuntza erabiliko duzu horretarako? Ingelesa”.

Xabier Etxanizen hitzetatik bakarrik ez, Euskararen Plan Gidariaren pasarte askotatik ere ondorioztatzen da euskarak ingelesa beharko duela bidaide, ikerkuntzan ospe pixka bat irabazi nahi badu. Euskarak EHU-n duen lehiakide nagusiak, gaztelaniak, ez du arazo hori. Agian ez da ikertzaileen *lingua franca*, baina 500 milioitik gora hiztun edukitzea ez da berme ahula.

Euskaraz ikertzea, negozio txarra

Asmoak asmo eta neurriak neurri, bide luzea dago egiteke, Lore Erriondo EHUko Filosofia eta Hezkuntzen Zientzietako irakasle eta

ikertzailearen iritziz. Ez dugu ausaz aukeratu Erriondo mintzakide modura, 2012ko Euskal Kulturaren Urtekarian idatzi zuen honengatik baizik: “Ikerkuntzari dagokionez, euskarazko ikerketa proiektuak urriak dira eta ikerketa-talde euskaldun gutxi daude. Ez da errenta euskaraz ikertzea: laguntza gutxi, curriculumerako balio eskasa, sortze lan handia eskatzen du terminologia mailan, talde eraketan, baliabide urriak eta beste hizkuntzataraz itzuli beharra aintzat hartzea nahi bada”.

Prestigio falta ez da arazo bakarra

Norberaren curriculumak gizentzeko duen balio eskasaz gain, beste faktore batzuek oztokatzen dute euskaraz ikertzea, Erriondoren esanetan. Esanguratsuenetako bat lan-kargaren banaketan dagoen

**“Ikertzaile izaterainoko
oztopo-lasterketan,
ikasleei etengabe
ematen diegun mezua
da ingelesa erabili
dezatela”**

Lore Erriondo
EHUko irakasle eta ikertzailea

desoreka da. EHUk irakasle elebidunak eta elebakarrak –hots, gaztelaniadunak– bereizten ditu; lehenbikoen euskaraz zein gaztelaniaz eman ditzakete eskolak, bigarren multzokoen gaztelaniaz baino ez. Horrek zama dakarkie euskaldunei, ikertzeko denbora kentzen baitie. Euskararen Plan Gidariaren Luza-pena izeneko dokumentuan desoreka hori existitzen dela onartzen du EHUk, bai eta arazoari aurre egiteko neurriak iragarri ere, baina momentuz arazoa hor dago.

Erriondok garbi du euskarak ezin duela munduan ingelesarekin lehiatu, baina uste du errealtate horrek ez gaituela konformatzera eramane behar. Alegia, EHUren zereginetako bat dela euskara sustatzeko eginahalak egitea –unibertsitatearen estatutuek diotenez, bestalde–; irakasle erreteriarren hitzetan, “euskararen aldeko faktore zuzentzaileak” ezartzea.

Tesia euskaraz, gutxiren hautua

Orain arte egindakoa ez zaio nahikoa iruditzen Erriondori. “Irakaskuntzaren alorrean aurrerapausoak izan dira eskaria egon delako, baina ikerkuntzan ez da gauza bera gertatzen; ikerkuntzan, kontsumitzaileek ez dute eskatzen euskaraz egiteko”. Hona adibide gordina: 2001/2002 ikasturtean EHU-n defendatu doktorego-tesien %8,3 euskarazkoa izan zen, eta %3,1 ingelesezkoa. Gainerakoa, gaztelaniazkoa. Hamar urte geroago, 2010/2011n, euskararen portzentajea ia berbera zen, eta ingelesarena, aldiz, sei halako: %18,3. “Ikasketak hasten dituzten ikasleetatik gutxi batzuk iritsiko dira ikertzaile izatera, eta horrainoko oztopo-lasterketan etengabe ematen diegun mezua da ingelesa erabili dezatela”, dio Lore Erriondok, “horrek ate gehiago zabalduko dizkielako. Bada, ateak zabaltzea bada kontua, ikertu dezatela euskaraz, eta gero arduratu dadila unibertsitate ikertutako hori nazioartean zabaltzeaz”.

Xabier Etxanizek aitortzen du militantetik zerbait baduela tesia euskaraz aurkezten duenak, EHUk lan hori errazteko laguntzak eman arren. Eta gauza bera esan liteke ikerketaz oro har. “Militantzia horretatik aparte, EHUk pizgarriak eman behar ditu euskaraz argitaratzeko”, dio errektoreordeak. Pizgarria zein den asmatzea, horra gakoa. ■



Babeslea: Bilboko Euskara Zerbitzua

harrapazank.esena
sortuzank tailerrak

gazte
bilbotarron
komunitatea

Bilbao topagunea

Chavez presidentea. Presidente?

“Chavez presidentea” esate hutsak erantzunak eragiten ditu interneteko sare sozialetan: Presidente? Diktadore esan nahiko duzu”, dio internauta batek.
Edo: “Hitler ere hautestontzietan aukeratu zuten”.

| OLGA RODRÍGUEZ / EL DIARIO.ES |

CHAVEZ EZ ZEN DIKTADOREA, CNN katean, interes labainek bat egiten duten aferetan geroz eta informazio lerratuagoa eskaintzeko joera duen telebistan berrikitan esandakoa gorabehera. Hirutan demokratikoki hautatutako presidentea izan zen. Haren agintaldian Venezuelako pobrezia erdira murriztu zen eta analfabetismoa ia erabat ezabatu.

1999tik 2010era eskualdean desoreka gutxien zuen herrialdea bihurtu zen Venezuela, Gini koefizientearen arabera, Hego Amerikako bigarren herrialde izan zen pobrezia murrizten: %49,4tik %27,8ra. UNESCOren datuen arabera, eskolatzeko eta alfabetatzeko programen bidez, lehenago hezkuntzarik jasogabeko biztanleen %92,5ek irakurtzen ikasi zuten hamar urtetan. 2003tik aurrera, doako oinarritzako osasun laguntza, diru publiko lagundutako elikagaiak eta lehen nahiz bigarren mailako hezkuntza eskaintzeko ‘misioak’ bultzatu ziren.

Nazio Batuen Giza Garapenerako Programaren Indizean ere gora egin zuen, 0,735era iritsi arte; horri esker, Hego Amerika eta Karibeko hogeita hamahiru herrialdeen artean hamaugarrena da, Peruren, Ekuadorren, Brasilen eta Kolonbiaren aurretik. AEBetako presidente ohi Jimmy Carterrek berak azpimarratu izan zuen Chavezek Venezuelako pobrezia erdira murriztea lortu zuela.

Venezuelan 2002ko estatu kolpea izan zenean, Venezuelako herriak Chavez alde egitera behartzen zuela



Chavezek azkenera arte defendatu zuen Hego Amerikarako proiektu bolivariarra.

zioten titullarrak argitaratu ondoren, inork ez zuen *meaculparik* bota, ezta errealitateak titular haiek oker zeudela erakutsi zuenean ere. Chavezek eta haren aldekoek 2004ko erreferenduma, 2004ko eskualdekako hauteskundeak eta 2005eko legebiltzarrerako hauteskundeak irabazi zituzten, baita 2006ko eta 2012ko presidentziarako hauteskundeak ere, botoen %62,84 eta %54,84rekin, hurrenez hurren, eta parte-hartze portzentaje handiarekin.

Eginkizuna Hego Amerikan

Venezuelako presidentea herrialdeko elite zuri aberatsaren pribilegioen aurka egin zuen, behartsuenei bideratutako politikak abiarazi zituen eta Venezuelako petrolio arrotzen esku uzteari uko egin zion. Lotura estua izan zuen Kubarekin, La Habanara petrolio bidaliz sendagile trebatuen truke, ALCA Merkataritza Librerako Hitzarmenaren aurka egin zuen, ‘hegemoniko eta inperialistatza’ jo zuen, eta horren ordez ALBA (Ame-

DIARIO DE OCTUBRE

rikako Herrien Aliantza Bolivariarra) bultzatu zuen. Atzerritarrek politikoki nahiz ekonomikoki maneiatzen duten eskualdean, bere herrialdearen benetako independentzia defendatu nahi izan zuen, identitate propioa eman, iparraldeko atzaparretatik eta nazioarteko finantza boteretik urrun.

Petrolio gordin astunerako findegiak nazionalizatu zituen; Exxon Mobil nahiz Conoco Philips AEBetako enpresek proposatutako baldintzak onartu ez, eta alde egin zuten. Ternium Sidor burdingintza enpresa berriro nazionalizatu zuen, herrialdeko telekomunikazio enpresa nagusia eta elektrizitate konpainia pribatu handiena publiko bihurtu zituen, eta nekazaritza lursailak desjabetu zituen latifundioak deuseztatzeko. Jakina, askok ez zituzten gogoko neurri horiek guztiak.

Ekarpen negatiboari dagokionez, ekintza onak ez bezala ederki zabalduak kontuak daude: inflazioa, monetaren debaluazioa, Venezuelako kaleetako delinkuentzia maila altua, bere pertsonalismoa edo Siriarekiko harremanak. Arerioek adierazpen askatasuna mugatu izana egotzi diote, eta autoritario nahiz sektarizmatik jo dute.

Ziurrenik haren erretorika eta akatsak berriro gogoraraziko dizkigute. Horren kontra distantzia hartzea, kontrastatzea eta nork bere ondorioak ateratzea komeni da beti. ■



Oinarrizko mailak ikasle apalenentzat

HIZTUN OINARRIZKOAK izan ditu hizpide Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak joan den astean. A1 eta A2 euskara egiaztagiria, eta haiek lortu ahal izateko ikasmateriala aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzak. Orain arte, Europako markoari jarraiki, euskara ikasleek B1 mailako egiaztagiria zuten oinarrizkoena. C2 da mailarik altuena.

Hiztun oinarrizkoentzat dira bi egiaztagiri errazenak, une honetan 9.200 ikasle ari dira gutxieneko maila horretan, hau da, euskaltegietan ari diren ikasleen hirutik bat.

Baztarrikak hiztun oinarrizkoen ahalegina eta beharra azpima-

rratu zuen: “Era guztietako erabiltzaileak behar ditugu. Oinarrizko maila dutenek ere ekarpen handia egin diezaiokeite hizkuntz bizikidetzari”. Eta ildo berean hitz egin du Joseba Erkizia HABEko zuzendariak: “Helburua ez da gramatika, komunikatzea baizik”.

Bi mailak gainditzeko material berezia prestatu dute, *Primeran!* izenekoa.

Euskararen gorentasunera iritsi nahi duenarentzat balio dute egiaztagiriok, baldin eta bidean geratzen bada, esku artean zerbait duela geratuko da.

EGA ospetsuaren maila lortzea ilargira joatea baino zailagoa irudi-

tzen zaiona errazago animatuko da euskara ikastera.

Gramatika-zurrunbiloan itotzeko arriskua saihestu daiteke maila apalekin eta ikaslearen gogoia bizi-rik mantendu.

Ez dezagun ahaztu ordea, hizkuntza ikastea hizkuntza ikastea dela, eta ondo ikasteko orduak horretan ematea ezinbestekoa dela.

Nire lagun batek dio, mende erdia beteta, berandu dabilela euskara ikasteko, ez litzatekeela gai izango. Herri euskaldunean bizi denez ia dena ulertzen du eta esaldi osoak esateko gai da. Desafioa otu zait: “Baietz dakizunarekin A1 ateral”.

Bahea

Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakari ohiak www.aiaraldea.com-en esanak:

“Aitortu behar dizuet, ez nuen uste posiblea zenik berrogei eta piku urteekin euskara ikastea eta are gutxiago euskaraz bizitzea; baina honetan ere ustea ustel, ez da horrela. Ez da egia, beraz, gaztelaniaz esaten den esatera hori: *loro viejo no aprende a hablar*. Zein ote da, orduan, gakoa euskara edo beste hizkuntza bat ikasteko? Erantzuna, nire ustez, argi eta garbi dago: maitasuna”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Enplegua defendatu, sortu eta konpartitu

OTSAILEAN 234.530 langabetu zenbatu ziren Hego Euskal Herrian, biztanleria aktiboaren %17,64 hain zuzen. Prestaziorik jasotzen ez duten langabetuen kopurua 100.000tik gorakoa da jadanik, langabetuen %44. Gazteen artean eta inoiz lanik izan ez dutenen artean ere paroa handitzen ari da; belaunaldi batzuentzat etorkizuna oso iluna da eta pobreziarako bidea darama. Joan den astean manifestazio garrantzitsuak izan ziren Bilbon eta Iruñean enpleguaren alde. Krisian dauden enpresa ugariaren pankartak ikusi ahal izan ziren bertan, batez ere enpresa txiki eta ertainetako langileenak. Kapitala eta administrazio publikoak salatzeaz gain, enpleguaren beharra aldarrikatu zuten eta hura defendatu, sortu eta konpartitzeko politika ekonomiko berriak eskatu zituzten.

Testuinguru horretan, harrigarriak dira EAEko lehendakariaren hitzak: egoera “deabru” honetan, “gure historia hurbilean izan dugun urterik okerrrena” biziko dugula esan du. Era berean, egoera konpontze-

ko, beharrezko ikusten du “euskaldunek hobetzeko dugun gaitasun espirituari eustea, berrasmatzeko kapaz izatea, eta ezer ekartzen ez duten su artifizialak albo batera uztea”. Zer dira eta zeinek botatzen ditu “su artifizial” horiek? Urkulluren adierazpenek boluntaristak dirudite, eta bere arerioei egozten dien “suen” antza handia dute. Egoerari buelta emateko, bestelako politika ekonomikoei ekin behar zaie –Madrilera eta Bruselara begira egon gabe–: hazkundera sustatu, lana banatu eta sistema fiskala errotik aldatu. Benetako erreforma fiskalak 4.400 milioi euro ekarriko lizkieke diru-kutxa publikoei. Eta hori posible da, baldin eta herritarrei mesede egiten bazaie, eta ez patronalei, kapitalistei eta bankariei. Oraingoz baina, Urkulluren eta Barcinaren politika sozio-ekonomikoak azkeneko horien berak dira.

Juan Mari Arregi



Neoliberalismoaz ikastaro trinkoa Amikuzen

Broma asko egin da behikia zelakoan zaldi haragia zeramaten lasagna eta beste jaki industrialen kontura. Nafarroa Behereko Amikuze dago eskandaluaren erdian: haragi faltsutua Lur Berri kooperatibaren filial batek merkaturatu du eta haien bien nagusia Berthelemy Agerre da, gainera auzapez eta kontseilari orokor ere badena.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

JEAN PITRAUREN BIZIA ETA IDEIAK ezagutu dituenak –LARRUN bat eskaini zitzaion duela urtebete– Iparraldeko nekazaritza irauli zuten gizonaren eta asmoen ifrentzua aurkituko dute 2013ko Lur Berri kooperatiban eta Berthelemy Agerre enpresaburu eta politikariarengan.

Baina horretarako irakurleak lotu beharko ditu behiki itxuran zaldi haragia zeramaten *lasagna* eta bestelako jakien eskandaluak eta Amikuze, Spanghero eta Lur Berri, Findus eta haren hornitzaile den Berthelemy Agerre. Globalizazioaren adibide nabarmenetako bat etxean bertan, Donapaleu ondoko Aiziritzeko bulegoetan, daukagula ohartzea ez da erraz; are gutxiago Espainiako hedabide handien agendek itota bizi garenean.

Kazetariak *Horsegate* eta *Chevalgate* bataiatu dutena laburbildu dezagun. Ikerketa batean aurkitu dute zaldi haragia behikia eduki behar zuen Findus markako jaki industrial batzuetan. Okela faltsuaren arrastoei daramatzate ikuskatzaileak Findusen filiala den Comigel enpresara, honetatik Luxenburgoko Tavola hornitzaileira, eta atzerago joaz heldu dira Spangherora.

Bulegoak Okzitaniako Tolosa ondoko Castelnau-d'Aud daukan Spanghero Lur Berri kooperatibaren filiala da; Spangheroren burua

da Berthelemy Agerre Lur Berriko presidenteordea, Lüküzeko alkatea eta Pirinio Atlantiarreko kontseilari nagusia, mailaz igo den Jean-Jacques Laserreren oinordekoa.

Liburua osatzeko adina xehetasun mamitsu badu afera honek. Adibide kaxkar bat hona: auzitan dauden 42 tona zaldiki merkaturatu zituen Draap Trading Ltd.-ek egoitza Zipren dauka eta haren buru da Jan Fasen holandarra. Fasen duela justu urte bete kondanatu zuen Bredako (Herbehereak) auzitegiak 9 hilabeteko espetxe zigorreraz, Hego Amerikatik ekarritako zaldikia tranpantan saldu zuelako... musulmanek eskatzen duten *halal* haragitzat!

Spangheroko arduradunek hasieran aldarrikatu bazuten haiek ere engainatu egin zituztela, ikerlariak erakutsi dute jakinaren gainean ari zirela, bulegoetan aurkitutako fakturak horren frogak. Asteak aurrera joan ahala, 42 tonaren faltsutzeak azaleratu ditu agro-industriaren hainbat kontu ilun.

Askok hitz egin da jakien etiketaz eta trazabilitateaz. Jakien kontrolaren hipokresia salatu zuten, hain zuzen, Lur Berriren Aiziritzeko bulegoen atarian nekazari kooperatibista batzuek ELBko militanteekin batera egindako agerraldian: laborariari azienda bat kamioian

Nahia Garat argazkilariaren irudi handian, otsailaren 17an Donapaleu plazaratutako Libertimenduko *zirtziletako* batzuk. Mattin Irigoien zuzendaritzapean 18-20 urteko arizale gazteek emankizun bikaina eskaini zuten, Amikuze eskualdeko Kitzikazank, Iruski eta Burgaintzi taldeetako aktore, musikari eta dantzarien elkarlanean, ikusitako eszenak bertsotan komentatzen Joanes Etxebarria eta Maddi Sarasua. Nekazaritza industrialaren kalteak, notable politikoen jokaldi maltzurak, karrikan bizia galdu ahala agintariak turistentzako ederragotzen dituzten karraketako obrak, mundializazioaren astakeriak ... horiez eta gehiagoraz egin zuten jolas umorez, euskaltzaleez ere irri egitea ahaztu barik. Amikuztar baten jardunak josten zituen antzerkiaren hariak oro: Amikuzeko aginte faktikoetarik den eta Lur Berri kooperatiba erraldoiaren buru dabilen Berthelemy Agerre (Nicolas Sabathierren argazki txikian).

eramateko baimenak zorrotz eskatzen zaizkio, larrean daukan aberea zehazki identifikaturik egotea... baina gero horren haragia agro-elikaduraren sarean sartzen denetik kontrola galtzen du, hizki bitxiz etiketatutako hainbat osagairekin nahastuta. Handien kontrolik ezaren gainean eraiki dela, alegia, mugarik gabeko merkatu globala.

Agro-industriaren mundu mailako sarean lekua egin nahi izan du Amikuzeko Lur Berri. 1971n sortua, ordura arte gari eta artoaren kudeaketan ari ziren kooperatibei segida harturik, 1980ko hamarkadatik eten gabe handitu da, gaur daukan 211 milioi euroko kapitala eta 1.130 milioiko salmentak erdietsi arte, lurgintza, elikadura eta banaketa atalen artean.

Lur Berriko notableak sortzen ditu

Aiziritzen elkartu ziren kooperatibista eta sindikalistek salatu zuten: “Handitzea, enpresak erostea, enpresetan sartzea... azken hamarkadotan Lur Berri hartu duen estrategia da edonola handitzea mundu mailako merkaturatu aktore nagusi izateko, azkenean hegoak erre dituen arte afera honetan”.

Urteotako etekin guztiak erosketari berriak egiteko erabiliz, lekuko herritarrak eta nekazariak ahaztu dituela esan dute ELBtik. Bertako



Jean Lasalle biarnesaren bigarren aurkeztu zen Modem alderdi zen-tristaren zerrendetan. Kanpaina hartan Agerreri egindako jarraipenaren ondotik Elsa Fayner kazetariak erreportaje mamitsua plazaratu zuen *Le Nouvel Observateur* astekariaren taldekoa den *Rue 89* gunean.

Faynerrek *Lassalle, candidat de la ruralité. Au menu, viande avariée ou importée* ("Lasalle, nekazal munduaren hautagai. Menuan, haragi ustela edo inportatua") kontrajartzen zituen Aspe bailara menditsuko artzain-semea den Lassalle eta *agrobussines*eko enpresaburua den Agerre. Honen agintean lotu zaie Lur Berri Pioneer bezalako multinazionaleri, zabaldu da nekazaritzaz gain elikaduretan edo brikolajeen muturra sartuz.

1.600 langile omen dauzka Agerre agindupean, gehienak bera hautetsi den Amikuzetik aparte. Baina urrutira begiratzen ohitua, dozena bat urtez lursail zabalen jabe izan zen Argentinan. Haiek salduta, familiak —bi seme gaztek hartu omen dute aitaren bidea— alorrrak erosi dituzte Marokon, han beterraba edo erremolaxak lantzeko.

Azken eskandaluaren ondoren, Guillaume Gendronek *Libération* egunkarian plazaratu du: *Barthélemy Aguerre, l'appétit sans limite du patron de Spanghero*. Iparraldeko notabearen indarrak mintzatu da *Libération*en Sauveur Bacho sindikalista: "Eskualde honetan ez dagoenez enplegu askorik, esan daiteke bera dela nagusi bai politikan eta bai nekazari munduan". ■



produktuen sustapena baztertu du, Donapaleuko hiltegia ixten lagundu, Ossau-Iraty sor-markako produktuek behar duten arto garantizatia ekoiztea ukatu laborariei...

Estrategiak harrapatu ditu korporazioaren 300 langileak eta kooperatibistak ere. CFDT sindikatuak azaldu du langileen erdiaren soldatak hileroko 1.300 euro netoen azpitik dabilzala, antzinasuna barne. Sauveur Bacho sindikalista historikoak publikoki salatu ditu enpresaren metodoak, berari ere "irteteko atea non dagoen" erakutsi ziotela.

CFDTk eta 194 langilek duela aspalditik auzitan daukate Lur Berri, 1993tik 2000ra arteko etekinen zatia zor dielakoan, guztira 1,8

milioi euro baino gehiago. Kasualitateak nahi izan du Spangheroren sikulusaltsa haizatzearekin batera erabaki duela Parisko Cour de Cassation auzitegiak langileen auzia berriz irekitzea.


Afera guztiaren erdi-erdian, izen bat: Berthelemy Agerre. 1955ean Lüküze-Altzumartan sortua, 21 urterekin bihurtu zen bertako alkate. Hala segitzen du gaur ere. Gazterik alkate eta gazterik Lur Berri kooperatibako presidenteorde, 1980 ingururik. Pirinio Atlantiarretako Kontseilu Orokorrean ordezkari; lekua Jean-Jacques Laserre ezagunari hartu dio, hau ere luzaz Lur Berriko presidente izana delarik.

Frantziako legebiltzarrerako azken hauteskundeetan, 2012an,



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Guardia zaharra *touché*

OSO UKITUTA dago Nafarroako elite politiko zaharra. Nekez pentsatuko zuen UPNk Nafarroako Kutxaren auziak bere agintaritzaren eraren kolokan jarriko zuenik. Baina hala da eta, ezker-eskuin, herritarrak gogaituta eta suminduta daude.

UPN eta PSNko politikarien dieten azken aferak gorenera eramandu haserrearen langa. Eta UPNko agintari eta politikarien latsa ere bai. Hasieran dietak ondo kobratutakoak ziren, beren lanaren ondorio izateaz gain, soldatak osatzeko balio zuten, batzuen esanetan. Orain oparotasunaren garaiko fruitu gisa saldu ditu Yolanda Barcinak, baina gaur egunerako egokiak ez direla zehaztuz. Orduan, ongi kobratuak baziren, zergatik itzuli dirua orain? Erantzuna Alberto Catalánek eman du *Diario de Navarra*-n, ez dago arrazoi moralik, judizialak baizik: “Aholkulariek gomendatu diete Iraunkorreko dietak itzultzea”.

UPNren kongresuari begira, dirua itzuliz Barcinak irudi kolpe ederra eman dio Alberto Cataláni, eta hau defendatu egin da, baina Miguel Sanz ere zipriztinduz (Sanz izan zen dirua itzultzen zuela iragarri zuen lehena).

PSN barne, oposizio osoak bat egin du Legebiltzarrean Barcinaren dimisioa eskatuz. Oraingoan, alabaina, dimisio hori parlamentuari baino gehiago egongo da igandeko UPNren kongresuko emaitzei begira. PSOEko idazkari nagusi Alfredo Pérez Rubalcabak ere, joan den astean Nafarroara egindako bisitan argi utzi zuen PSNk zer egingo duen: Nafarroako egonkortasunaren izenean, UPNren alternantziak jai du eta PSNk UPN lagunduko du. Eta horrela, badirudi berriz dena lotua

geratzen dela, baina ez, ez dago horren argi. Aldaketa garaia bizi dira Europa osoan, herritarrak haserre dira eta ez dago argi botoak nola joka dezakeen.

HUGO CHAVEZ-EN 14 urteko agintaldiaren balantzea egitean, ezinbestean azpimarratu behar dira berdintasunaren ikuspegitik herritar pobreen alde egindako lana eta izandako lorpen handiak. Mundu ia osoak aitortu dio hori. Chavismoari eta petrolioari esker, barne garapenaren eta latindar Amerikaren integrazioaren akuilu eta erreferentzia bilakatu da Venezuelak.

Ezin da Chavezen figura aztertu, Hegoamerikako azken 60 urteetako historia kontuan hartu barik. Alde horretatik, berak Venezuelak puntufijismoaren –AD eta COPEIren 1958ko itun historikoa– atzaparretatik libratu zuen 1999an, herrialdea agintarien ustelkeria, lapurreta eta AEBen menpekotasunetik askatuz. Ez guztiz, ordea, ekonomian AEBkiko duen lotura handia da, hari saltzen baitio ekonomia eta iraultzaaren motorra den petrolio gehiena. Gerra Hotzaren ostean, Francis Fukuyamaren historiaren amaiera

garapenean diren herrialde askorentzat eredu bilakatu da.

Barne mailan, ordea, iraultza bolivariarraz arazo handiak izan ditu eta izango ditu. Ekonomikoki ez du lortu petrolioaren dependentzia gutxitzea, eta honen indarra ekonomia dibertsifikaziora bideratzea. 14 urtetan ezin da asko egin maila horretan, baina norabide arrastorik ere ez da ikusten.

Bestetik, sendotasunez aurrera egiteko, badirudi ezinbestekoa izango dela Venezuelako herriarren zatiketa baretzea eta oposizioko sektoreak aldetara erakartzeko. Bide horretan, orain arteko arazo ideologikoak are eta sendoago egingo dira. Lan nekezena izango da asmatzea ea nola egin behar den XXI. sozialismoa –zutoin horrek zutik jarraitzen badu bederen–. Ea posible ote den berau gauzatzea egungo Venezuelaren botere errepublikarra eta demokrazia errepresentatiboaren oinarriak mantenduz. Finean, ea testuinguru kapitalista batean, eta AEBn atarian, halako iraultzarik egitea posible ote den.

Historian era guztietako kasuak daude, batzuetan liderra desagertzean dena hondoratzen da eta, besteetan, batez ere mugimenduak oinarri sendoak dituen, indarrak askatu eta prozesua bera indartzen da. Badirudi iraultza bolivariarraz badituela aurrera jarraitzeko baldintzak eta oinarriak, baina Chavezen tamainako liderrik

gabe ezin berdintsu izan. Garai berriaren lehen froga gogorra apirilaren 14ko lehendakaritzarako hauteskundetan izango da. ■


Igandeko UPNren kongresuko emaitzen esku egongo da Barcinaren dimisio eskaera

hartan, kapitalismo garaile eta guztiz ahaltsuaren aurrean alternatiba eta erreferentzia izan da Venezuelak eta hori bera bakarrik ez da meritu gutxi. Arrakasta mugatu eta kontraesan askorekin, baina



ASTE HONETAKO

zozketa



Besaro Landa Hotela

Bi gau
bi lagunentzat

Iratiko oihanaren sarreran
Irigoien, 5
Itzaltzu NAFARROA

www.besaro.es

1




Inguru Abentura

Safari itsuka
3 harpideentzako bina sarrera

San Juan kalea, 18
Albizen ARABA

www.inguruabentura.com

2



Iruñeko Planetarioa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3



Esku hori

Zenbait idazle

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2359. Argia)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

- Karmen Alvarez Yagüe (Donostia)

WILLIE BUCK CDa

- Xalba Elortza (Westhalten)
- Mamen Uharte Azpiroz (Leitza)
- Malentxu Arrospide Arrate (Lizartza)
- Alberto Etxeberria Arrese (Oñati)
- Miguel Uriarte Ballarena (Barañain)

KIROLAZ BADAHI

- Asier Alvarez de Eulate Mujika (Ordizia)
- Imanol Irigoien Aranberri (Oñati)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Idoia Ormaetxea Ireta (Durango)
- Inazio Usarralde Arantzadi (Lazkao)
- Felipe Alkorta Andonegi (Donostia)

ERRITMOA liburu

- Aitor Duñabeitia Martin (Durango)
- Juan Ignacio Eloegi Aldasoro (Berastegi)
- Imanol Irizar Intxausti (Pasaia)
- Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)
- Gotzon Garitaonandia Euskaltegia (Bermeo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea



Bixente ARGIA_{rentzako}



1978. urtean

Bixente Ameztok

Zeruko Argiarako egindako

36 azal.

Bilduma honek

Joseba Sarrionandiaren

hitzaurrea darama.

- 36 lamina
- Karpeta
- 210x280mm.



· Prezioa: 20€

· Harpideentzako: 15€



EGIN EZAZU ZURE ESKAERA: ☎ 943 37 15 45 | denda@argia.com